



Bertsio informatiko honen egilea: Josu Lavin; Urkiola, 1-1C 48990 - Getxo (Bizkaia).

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LeizarragaKateximea.htm>

## **KATEXISMEA**

**Joanes Leizarraga**

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabetze Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**Katekismoa** *Jesus Krist gure Iaunaren Testamentu Berriari* itsatsirik argitaratu bazen ere (1571), autonomia propioa duen testua da eta bereizita eskaini ohi zen maiz asko (Leipzig-eko aleak, esaterako, ez dakar eranskin hau). Hala aurkezten da hemen ere.

## **KATEXISMEA,**

ZEIN ERRAN NAHI

BAITA, IESUS KRISTEN

doktrinan haurren irakasteko forma, non  
Ministreak interrogatzen baitu, eta haurrak ihardesten.

FEDEKO ARTIKULUEZ.

### **MINISTREA.**

Zein da bizitze humanoaren fin prinzipala.

### **HAURRA.**

Iainkoaren ezagutzea.

**M.** Zergatik diok hori?

**H.** Zeren hark kreatu eta mundu hunetan ezarri ukan baikaitu, glorifika dezagunzat. Eta segur razoin da, gure bizi guzia haren gloriatan enplega dezagun.

**M.** Eta zein da gizonaren on subiranoa?

**H.** Erran dena bera.



- M.** Zergatik Iainkoaren ezagutzea on subirano deitzen duk?
- H.** Zeren hura gabetarik dohakabeago baita gure konditionea ezen ez abre brutalena.
- M.** Beraz gauza klaroa duk, gure dohakabetasunik handiena dela, Iainkoak manu bezala ez bizitzea?
- H.** Egia da.
- M.** Baina zein da Iainkoaren egiazko eta bidezko ezagutzea?
- H.** Hari bere ohorea renda dakionzat ezagutzen dugunean.
- M.** Nola da haren egiazki ohoratzeko manera?
- H.** Gure konfidanza guzia hura baithan ezar dezagun, haren borondateari garrantzala hura zerbitza dezagun, hura baithan salbamendua eta ontasun guzia bilhatzen dugularik: eta ontasun guzia harenganik heldu dela bai bihotzez bai ahoz ezagut dezagun.

#### MINISTREA.

- Bada gauza hauk bata berzearen ondoan, eta luzakiago deklaratu ahal ditezenezat zein da hik erran dituan puntuetarik lehena?
- H.** Gure konfidanza guzia hura baithan ezar dezagun.
- M.** Nolatan hori egin ahal daite?
- H.** Lehenik, bothere guzitako eta perfektoki on dela ezagut dezagun.
- M.** Eta asko da hori?
- H.** Ez.
- M.** Zergatik ez?
- H.** Zeren ezpaikara digne hark bere botherea gure aiutatan erakuts dezan, ez bere ontasunaz gu baithara usat dezan.
- M.** Zer bada gehiago behar da?
- H.** Gutarik batbedera segur den, ezen hark on daritzala, eta Aita izan nahi zaiola eta Salbadore.
- M.** Nondik hori dakikegu?

**H.** Haren hitzetik, zeinetan deklaritzen baitrauku bere miserikordia Iesus Kristez, eta segurutzen baikaitu bere gureganako amorioaz.

**M.** Beraz egiazko konfidanzaren Iainkoa baithan ezarteko fundamanta eta lehen hatsea, duk Iainko Aitaren ezagutzea Iesus Kriste Jaunean.

**H.** Hala da.

**M.** Orain ezagutze horren somarioa zein den, hireganik laburski enzun nahi nitek.

**H.** Hura da Kristino guziek egiten duten fedearen konfesioean: zein komunzki Apostoluen sinboloa deitzen baita: zeren hura Kristinotasunaren lehen hatsetik bethiere eduki izan baita, eta zeren Apostulu beren ahotik, edo haien eskribatuetarik ilkia eta hartua baita.

**M.** Eia danzugun hartan erraiten dena.

**H.** Sinhesten dut Iainko Aita bothere guzitako zeruaren eta lurraren Kreazalea baithan. Eta Iesus Kriste haren Seme bakoitz gure Jauna baithan: zein konzebitu izan baita Espiritu sainduaganik. Sorthu Maria birjanganik: Pontio Pilateraren azpian pasionatu, kruzifikatu, hil eta ohortze: Iautsi izan da ifernuetara: Hereneko egunean resusztatuta izan da hiletarik: Igan izan da zeruetara: Iarria da Iainko Aita bothere-guzitakoaren eskuintean: Handik ethorteko da bizien eta hilen iujeatzera.

Sinhesten dut Espiritu saindua baithan: Sinhesten dut Eliza saindua katolikoa: Sainduen komunioea: Bekatuen barkamendua: Haragiaren resurrekzioea: Bizitzea eternala. Amen.

#### MINISTREA.

Puntu horietarik batbedera hobeki adi dadinatzat, zenbat partetara konfesio hori partituren dugu?

**H.** Laur prinzipaletara.

**M.** Eia danzugun nola.

**H.** Lehena Iainko Aitaz izanen da. Bigarrena, Iesus Kriste haren Semeaz, eta hark guregatik egin duen redentzioaren historiaz. Hirugarrena. Espiritu sainduaz. Laugarrena, Elizaz, eta Iainkoak hari egin drauzkan gratiez.



**M.** Iainko bat baizen ez izan eta, zergatik hirur aipatzen dituk, Aita, Semea, eta Espiritu saildua?

**H.** Zeren Iainkoaren esentia bakoitz batetan kontsideratu behar baititugu, Aita, lehen hatsea eta gauza guzieren lehen kausa bezala: gero Semea, zein baita haren Sapientia eternala: eta Espiritu saildua, zein baita haren berthutea eta puiantza, hura baithan bethi dagoelarik kreatura guzietara hedatzen dela.

**M.** Horrez erran nahi duk ezen ezteela inkonbenientik batre, baldin dibinitate bakoitz batetan konprehenditzen baditugu hirur persona hauk distinktoki, eta halakotz Iainkoa ezteela partitzen.

**H.** Hala da egia.

**M.** Erran ezak orain lehen partea.

**H.** Sinhesten dut Iainko Aita bothere guzitako zeruaren eta lurraren Krezalea baithan.

**M.** Zergatik deitzen duk Aita?

**H.** Lehenik Iesus Kristen konsiderationez, zein baita haren Hitz eternala, harenganik denbora guzieren aitzinetik enjendratua, gero mundura igorri izanik haren Seme deklaratu izan da. Baina zeren Iainkoa Iesus Kristen Aita baita, handik dakigu gure ere badela.

**M.** Nola aditzen duk bothere guzitakoa dela?

**H.** Ezta erran nahi botherea baduela, hura enplegatzen ezpalu bezala: baina erran nahi da ezen kreatura guziak bere eskuan eta suiektionean dituela: gauza guziak bere probidentiaz dispausatzen dituela: mundua bere borondateaz gobernatzen duela: eta zer ere egiten baita, nola plazer baitu hala gidatzen duela.

**M.** Beraz, hire erranaren araura, Iainkoaren botherea ez eztiagok behin ere alfer, baina estimatzen duk hik ezen bethiere eskua lanean duela: eta deus ezteela egiten harzaz baizen, edo haren konjitez eta ordenaz baizen.

**H.** Hala da egia.

#### MINISTREA.

Zergatik erraiten duk gero, ezen zeruaren eta lurraren Krezale dela?

**H.** Zeren, nola bere obrez manifestatu izan baitzaiku: hala guk ere hetan hura bilhatu behar baitugu. Ezen haren esentia gure adimenduak ezin konprehendi dezake. Baina mundua dugu mirail bat bezala, zeinetan kontenpla ahal baitezakegu ezagutezko mengoa dugun bezenbat.

**M.** Zerua eta lurra erraiten duanean, eztituk berze goitiko kreaturak ere aditzen?

**H.** Bai-aitzitik: baina bi hitz hetan konprehenditzen dirade kreatura guziak, zeren guziak baitirade zeruko edo lurreko.

**M.** Zergatik Iainkoa deitzen duk Krezale solament, ikusirik ezen ungiz ere handiago dela kreaturen entzea eta bere estatuan konserbatzea, ezen ez haien behin treteni krezalea?

**H.** Krezale erraiten dugunean ere ezta erran nahi, ezen Iainkoak behin bere obrak hala kreatu dituela non gehiagorik hezaz artharik ezteuen, baina aditu behar da, lehen hatsean mundua nola egin baitzuen, hala orain entretzen ere duela bere estatuan: hala non zeruak ez lurrak ez berze kreaturak batek ere ezpaitu izaterik, ez ezpaitirade konsistitzen haren berthutez baizen. Gehiago, gauza guziak bere eskuan dituenaz geroz, beraz hetako gobernamendua eta gehientasuna ere badu. Bada zeruaren eta lurraren krezale den bezenbatean, aditu behar da, ezen hura bera dela bere zuhurtziaz, ontasunaz eta bothereaz naturaren kursu guzia gidatzen eta gobernatzen duena: uritea eta idortea, babazuza eta tenpestatea, denbora gaitza eta ederra, urthe ase eta gosea, osasuna eta eritasuna igorten dituen: soma, gauza guziak bere manuko ditu, hezaz plazer duen bezala usatzeko eta zerbitzatzeko.

**M.** Deabruetz eta gaixtoez zer erranen dugu, hek ere haren manuko dirade?

**H.** Hek bere Espirituaz gobernatzen ezpaditu ere, hala bere bothereaz bridatuak bezala dadutza, non higi ere ezin baititezke hark permititzen drauen bezenbat baizen. Etare bere borondatea eragiten draue, haien intentionea eta deliberationea hala ez izanagatik.

**M.** Gauza horren iakitetik zer emendio heldu zaik?

**H.** Guzizko handia. Ezen gaizki lizate guzaz, baldin deabruetz eta gaixtoek Iainkoaren borondatearen kontra deusen egiteko bothererik balute. Eta are sekulan gure bihotzetan pausurik ezgendu, zeren bethiere haien perilean baikinande: baina frangoki gure bihotzetan sosega eta



alegera ahal gaitzke, dakigunean ezen Iainkoak hala brida herstua diadutela. non deus haren konjitarekin baizen ezin baitaidite: eta prinzipalki ikusirik ezen bera gure begirale eta defensor izanen dela prometatzen draukula.

#### MINISTREA.

Gatozen orain bigarren partera.

H. Eta Iesus Krist haren Seme bakoitz gure Iauna baithan.

M. Somarioki zer horrek erran nahi du?

H. Ezen egiazki ezagutzen dugula, nola Iainkoaren Semea den gure Salbadorea: gero deklaritzen du zer moldez hark damnationetarik delibratu ukan gaituen, eta salbamendua irabazi ukan draukun.

M. Eta zer erran nahi da Iesus.

H. Iesus erran nahi da hanbat nola Salbadorea, eta izen haur Aingeruaz eman izan zaion, Iainkoaren manamenduz.

M. Eta horrez badu abantailik, gizonaz eman izan balitzaio baino gehiago?

H. Bai. Ezen Iainkoak hala dei ledin nahi ukan duenaz geroz, egiazki halako ere den nezesarario da.

M. Eta Krist hitz hunek zer signifkatzen du?

H. Titulu hunez are hobeki deklaritzen da haren ofizioa. Ezen erran nahi da unktatu izan dela Aitaz Regetan, Sakrifikadoretan eta Profetatan.

M. Nola dakik hori?

H. Zeren Eskriptura sainduaren araez, unktionek hirur gauza haurtako zerbitzatzen baitzuen: eta hirurak oro maiz Kristi atribuitzen zaizkio.

M. Baina zer olio motaz unktatu izan da?

H. Ez olio bisiblez, lehenagoko Regeak, Sakrifikadoreak eta Profetak bezala, baina Espiritu sainduaren gratiaz, zein baita lehenago exteriorki egiten zen unktionearen egia.

M. Zerik da hik dioan Resuma hori?

H. Espiritual: eta konsistitzen da Iainkoaren Espirituan eta Hitzean, eta hautarik heldu dirade iustitia eta bizitzea.

M. Eta Sakrifikadoregoa zerik da?

H. Haur da Iainkoaren aitzinean presentatzeko ofizioa eta autoritatea, gratiaren obtenitzeko, eta haren gogarako Sakrifizioen ofrendatzez haren hiraren apazegatzeko.

M. Iesus Krist nola diok Profeta dela?

H. Zeren mundura iausti izan denean, bere Iainko Aitaren mandatarri eta enbaxadore erakutsi izan baita gizonak baithara, haren borondatea munduari betheki deklaraturik, profetia eta rebelatione guziak akaba, eta konpli litzanzat.

#### MINISTREA.

Horretarik probetxurik batre ethorten zaik?

H. Guzia da gure probetxu handitan. Ezen Iesus Kristek dohain hau guziak rezebitu ukan ditu, gu hetan partizipant egin genzanzat, guziek haren konplimentutik rezebi genezanzat.

M. Deklara izezadak hori klarokixiago.

H. Iesus Kristek Espiritu saindua bere gratia guziekin perfektionetan rezebitu ukan du: gutarik batbederari, Iainkoak beharra dugula daksan neurriaren eta portionearen araura, gratia hetarik parti eta distribui lezagunzat. Eta manera hunetan, zer ere on espirtual baitugu, guzia ithurri batetarik bezala, harenganik idokiten eta ukaiten dugu.

M. Eta haren Resuma zer probetxatzen zaiku?

H. Zer probetxatzen? Iesus Kristek gu gure konszientietako libertatean ezarriarik, abrastasun espirtualez eta dohainez bethe ukan baikaitu, iustoki eta sainduki bizi garenzat: halaber bothere ere eman drauku, gure arimen ardurazko etsaiei deabruari, bekatuari, haragiari eta munduari garaitzeko.

M. Eta haren Sakrifikadoregoa zer probetxatzen zaiku?

H. Lehenik, zeren hura baita gure Arartekoa, gu bere Aitarekin rekonzilia gaitzanzat: eta berzalde zeren haren moienaz baitugu sartze Iainkoaren aitzinean konfidanzarekin gure buruen presentatzeko, eta



sakrifiziotan ofrendatzeko gutarik heldu den guziarekin. Eta halatan bere sakrifikadoregoan, bere lagun egiten gaitu.

**M.** Dugun orain Profetiaz.

**H.** Profeta izateko ofizioa Iesus Iaunari eman izan zaionaz geroz, beren gehien eta doktor lizenzat: fina da, gu bere Aitaren eta bere egiaren ezagutze egiazkora hala erekar gaitzan, non Iainkoaren diszipulu domestiko egin baikaitezke.

**M.** Hik erraiten duana duk ezen Krist izen hunek hirur ofizio konprehenditzen dituela, eta hek Iainkoak bere Semeari eman drautzala, heta-rik heldu den probetxua bere fidelei komunika diezentzat.

**H.** Hala da.

#### MINISTREA.

Zergatik hura Iainkoaren Seme bakoitz deitzen duk ikusirik ezen Iainkoak guziak bere haur deitzen gaituela?

**H.** Iainkoaren haur izatea, eztugu naturaz, baina adoptionez eta gratiaz, zeren halakotan edukeiten baikaitu Iainkoak. Baina Iesus Iauna, zein baita bere Aitaren substantiak eternalki enjendratua, eta haren esentia bereko: zuzen onez Seme bakoitz deitzen da: ezen ezta hura bera baizen naturalki denik.

**M.** Hik erran nahi duk beraz, ezen ohore hori haren beraren dela, eta naturalki hari berari apertenitzen zaiola: baina guri dohainik eta gratiaz komunikatzen zaikula, haren membro garen bezenbatean.

**H.** Hala da egia. Eta halakotz komunikatione hunen respektuz berzetan deitzen da anhitz anaieren arteko lehen sorthua.

**M.** Zer erran nahi du hunen ondoan heldu denak?

**H.** Deklaratzen du nola Iainkoarem Semea Aitaz unktatu izan den, gure Salbadore lizenzat, erran nahi baita, gure haragi humanoa harturik, eta gure redentioneko behar ziraden gauza guziak konpliturik: hemen erraiten den bezala.

**M.** Zer aditzen duk hik bi hitz hauzaz, Konzebitu izan dela Espiritu sainduaganik, eta Sorthu Maria birjinaganik?

**H.** Ezen hura izan dela formatu Maria birjinaren sabelean, haren substantia propritik, Dabid-en hazi lizenzat, aitzinetik erran izan zen bezala: baina haur egin izan dela Espiritu sainduaren operatione mirakuluzkoz, gizonen konpainiarik gabe.

**M.** Nezesario zena gure haragi propioz bezti ledin?

**H.** Bai: zeren behar baitzen Iainkoaren kontra gizonak egin ukan zuen desobedientia, natura humanoan repara ledin. Eta berzela ezin zatekeen gure Ararteko, bere Aitarekin gure iunktatzeko.

**M.** Hik diok beraz, ezen behar zela Iesus Krist gizon egin ledin, gure personan baliz bezala Salbadorearen ofizioa konpli lezanzat.

**H.** Bai, hala da: ezen zeren ere falta baikara, hura guzia harenganik behar dugu. Eta berzela ezin egin daite.

**M.** Baina zergatik hori egin izan da Espiritu sainduaz, eta ez gizonen operationez, naturaren kursuaren araura?

**H.** Zeren hazi humanoa bere berez korrupitua baita, behar zen konzeptione hunetan Espiritu sainduak obra lezan korrupitione orotarik Iesus Kristen begiratzeko, eta saindutasun oroz konplitzeko.

**M.** Horra nondik ikasten dugun, ezen berzeak sanktifikatzen dituen, makula orotarik xahu dela: eta bere amaren sabelean-danik puritate orijinalean Iainkoari konsekratu izan kaiola makularik batre gabe: leinu humano guzia suiet den korrupitioneak hura baithan ikustekorik batre ezluenkat.

**H.** Horrela aditzen dut nik.

#### MINISTREA.

Nola da gure Iaun?

**H.** Nola Aitaz ordenatu izan baita, gu bere gobernamentuan gaituentzat Iainkoaren Resuma eta Iaurgoa zeruan eta lurrean exerzi dezantz: eta Aingeruen eta fidelen Buru denzat.

**M.** Zergatik haren sortzetik bertan, heriora ethorten aiz haren bizi-tzearen historia guzia utzirik?

**H.** Zeren ezpaita hemen mentionerik egiten gure redentionearen substantia propioz baizen.



**M.** Zergatik eztuk sinpleki erraiten hitz batez, hil izan dela: baina are Pontio Pilatez ere mentione egiten duk, zeinen azpian hil izan baita?

**H.** Hori ezta solament historia egiazko eta segur dela iakiteagatik, baina dakigunzat, ezen haren herioa kondemnationerekin izan dela.

**M.** Deklara ezak hori klarokiago.

**H.** Hil izan da guk iragan behar genduen pena sufri lezanzat, eta halatan hartarik delibra genzanzat. Eta gu zeren baikinaden hogendun Iainkoaren iujemendu aitzinean gaizkigile bezala, gure persona representat lezanzat, lurreko iuje baten aitzinean konparitu nahi izan da, eta haren ahoz kondemnatu, gu haren amorekatik zeruko iujearen aitzinean absolutua era hogen-gabe estima gentezenzat.

**M.** Pilatek bada inozent deklaritzen dik, eta ezтик gaizkigile bezala kondemnatzen.

**H.** Bata eta berzea egia da: ezen inozent eta hogen gabe deklaritzen da iujearen ahoz, aditzera emateagatik ezen eztuela bere merezituakgatik sufritzen, baina gureakgatik: badarik ere solemneki kondemnatzen da haren beraren sententiaz, ageri denzat ezen egiazki gure fiadore dela, kondemnationea guregatik bere gain rezebiturik, gu hartarik idoki genzanzat.

**M.** Ungi diok. Ezen baldin bera bekatore baliz ezlukek fiadore abas-tant, berzeren bekatuen pagamendutan sufritzeko. Bada haren kondemnationea gure absolutionetan lizenzat, gaixtoen kontuko estimatu behar izan duk.

**H.** Hala aditzen dut.

#### MINISTREA.

Zeren kruzifikatu izan den, ekarten du gehiago, ezen ez baldin nehork berze herioz hil erazi ukan balu?

**H.** Bai: Apostoluak ere erakusten duen bezala, dioenean ezen urkatu izan dela zurean, gure malediktionea bere gain har lezanzat, gu hartarik deskarga genzanzat. Ezen herio mota hura Iainkoaz maradikatua zen.

**M.** Nola, ezta Iesus Iaunaren desohoratzea, erraiten denean ezen malediktionearen suiet izan dela, eta are Iainkoaren aitzinean?

**H.** Ez: ezen malediktionea bere gain harturik, desegin ukan du hura bere berthutez, gu bere benediktioniaz bethe genzanzat: baina halakotz eztu benedikatu izatea behinere utzi ukan.

**M.** Hots aitzina.

**H.** Zeren herioa baitzen malediktionea bat gizonaren gainean bekatuaren kausaz, Iesus Kristek hura iragan eta sufritu ukan du, eta sufrituz hari garaithu izan zaio. Eta erakusteko ezen haren herioa egiazkoa zela, ohortze nahi izan da berze gizonak bezala.

**M.** Baina ezтик irudi biktoria horretarik deus emendiorik ethorten zaikula, ikusirik ezen halakotz gu ezgarela hil gabe azkenzen.

**H.** Horrek eztu deus egiten: ezen fidelen hiltzea ezta orain, bizitze hobe batetaratro iragaite bat baizen.

**M.** Beraz eztiagu gehiagorik herioaren beldur izan behar, gauza izigarri bat baliz bezala, baina Iesus Krist gure Buru eta Kapitain bakoitz gure aitzindari iarri izan zaikunari, gu ez galdu baina salbatu nahi gaituenari gogotik iarreiki behar gaizkiok.

**H.** Hala egiteko dugu.

#### MINISTREA.

Ifernuetara iausti izan dela erraiten duanean, zer erran nahi da hura?

**H.** Ezen Iesus Kristek eztuela solament sufritu ukan herio naturala, zein baita arimaren gorputzetik separatzea, baina are haren arima ere herstura handitan ikan,

dela: eta herstura hek S. Pierrisek herioaren dolore deitzen ditu.

**M.** Eta zergatik hori egin izan da, eta zer moldez?

**H.** Zeren bekatoren izenean pagamenduaren egitera Iainkoaren aitzinean presentatzen baitzen, behar zen herstura handi hura sendi lezan bere konszientian Iainkoaz abandonatua izan baliz bezala: eta are Iainkoa haren kontra aserre baliz bezala, abisme hartan zela oihu egin ukan zuen, Ene Iainkoa, ene Iainkoa, zergatik abandonatu nauk?

**M.** Iainkoa bada aserre zena haren kontra?



**H.** Ez baina behar zen hala afliji ledin, Esaiasez aitzinetik erran izan zena konpli ledinzat, Ezen Iainkoaren eskuaz io izan dela gure bekatuak-gatik, eta gure inikitateak ekarri ukan dituela.

**M.** Baina bera egiazko Iainko izan eta, nolatan herstura hartan ahal zateken Iainkoaz abandonatua izan baliz bezaja?

**H.** Aditu behar da ezen bere natura humanoaren araura herstura eta extremitate hartan izan dela: eta haur egin ledinzat, haren dibinitatea zegoela denbora apur batetakotz gordea bezala, erran nahi dut, bere indarra erakusten etzuela.

**M.** Baina nolatan ahal date, Iesus Krist, zein baita munduaren salbamendua, halako kondemnationetan izan ahal den?

**H.** Ezta hartan izan, haren azpian egoiteko: ezen hala senditu ukan ditu erran diraden hersturak, non hezaz ezpaita garaithu izan: baina bataillatu izan da ifernuetako puisanzaren kontra, hura hauts eta desegin lezanzat .

**M.** Horretarik ageri duk, zer diferentia den, hark sufritu duen tormentaren, eta Iainkoak bere hiran punitzen dituenen tormentaren artean. Zeren hartan, apur batetakotz izan dena, berzetan sekulakotzbaita: eta hartan sendi eraziteko ezten kolpe bat bezala izan dena berzetan heriotara zaurtzeko ezpata bat bezala baita.

**H.** Hala da. Ezen ezta izan Iesus Kristek bethiere Iainkoa baithan esperanza ukan eztuen, halako herstura handietan ere: baina damnatzen diraden bekatoreak, desesperatzen eta despitatzen dirade Iainkoaren kontra blasfemiorekin.

#### MINISTREA.

Erran diradenetarik ezagut ahal dezakegu Iesus Kristen heriotik zer probetxu dugun?

**H.** Bai. Eta lehenik badakusagu ezen haren herioa sakrifizio bat dela, zeinez kontentatu eta pagatu ukan baitu guregatik Iainkoaren iujemendua: eta hala apazegatu ukan du Iainkoaren hira, eta gu harekin rekonzi-liatu eta baketu ukan gaitu. Gero badakusagu haren odola dela ikutze bat zeinez gure arimak makula orotarik xahutzen eta purgatzten baitirade: finalki, badakusagu ezen haren herioaz gure bekatuak irauungi izan dirade-

la, sekulan Iainkoaren aitzinera eztatozentat: eta halatan gure kontra zen obligationea irauungi izan da.

**M.** Deus berze probetxurik etzaiku ethorten?

**H.** Bai . Ezen herio haren berthutez, baldin Kristen egiazko membro bagara, gutan gure gizon zaharra kruzifikatzen da, eta gure haragia mortifikatzen, gehiagorik guthizia gaixtoek gutan regna eztezatentat.

**M.** Dugun orain hurrenengo artikulua.

**H.** Hereneko egunean resusizatu izan da hiletarik: harraz erakutsi ukan du bere burua biktorioso herioaren eta bekatuaren kontra. Ezen bere resurrektioneaz iretsi ukan du herioa, zathitu ukan ditu deabruaren estekailuak, eta haren puisanza guzia desegin.

**M.** Resurrektione hori zenbat moldez probetxatzen zaiku?

**H.** Hirurez. Lehenik, zeren harraz konplituki iustitia irabazi izan baitzaiku. Gero zeren harraz baitugu bahi segur bat, ezen gu ere resusizaturen garela inmortalitate gloriatakora. Finalki, baldin hartan egiaz komunikatzen badugu oraindik resusizatzten gara bizitze berritara, Iainkoa bere borondatearen araura zerbitza dezagunzat.

#### MINISTREA.

Hots aitzina.

**H.** Igan izan da zeruetara.

**M.** Baina hala igan izan da non gehiagorik lurrean ezten?

**H.** Bai: ezen Aitak manatu zerauzan guzia, eta gure salbatzekotzat behar zen guzia egin zuenaz geroz: etzen mengoarik gehiagorik lurrean konbersa lezn.

**M.** Eta haren zeruetarat igaiteaz zer probetxu dugu

**H.** Handik probetxu doblea dugu. Ezen zeren Iesus Krist zeruan sarthu izan baita gure izenean, guregatik iausti izan zen bezala, hara sartze eman ukan drauku, eta seguratzten gaitu, ezen lehen gure bekatuagatik ertsirik zaikun bortha orain irekirik daikula. Berzalde, Iainkoaren aitzinanean guregatik konparitzen da, gure Ararteko eta Adbokat izateko.





**M.** Baina Iesus Krist, zerurat igaiteaz, hala mundutik retiratu izan da, non gehiagorik gurekin ezten?

**H.** Ez: ezen berzela erraiten du berak, seguratzan gaituenean ezen gurekin izanen dela munduaren finerano .

**M.** Eta gorputzeko presentiaz gurekin egoiten da?

**H.** Ez Ezen berze gauza da haren gorputz goiti zerurat igan izan denaz, eta haren berthute leku orotara hedatzen denaz.

**M.** Nola aditzen duk erraiten duanean ezen bere Aitaren eskuinean iarria dela.

**H.** Hitz hauk erran nahi dute, ezen bere Aitak eman draukala zeruko eta lurreko iaugoa, gauza guziak reji eta goberna ditzanzat.

**M.** Baina zer aditzen duk hik Eskuinaz, eta minzo aizen iarte horrez?

**H.** Konparatione bat da lurreko prinziatarik hartua, zeinek bere lok-tenent ordenatzen dituztenak iar eraziten baitituzte bere eskuinean, haien izenean goberna dezatenzat.

**M.** Beraz hik horrez eztuk aditzen S. Paulek erraiten duena baizen, erraiten duenean, ezen Elizaren buru ordenatu izan dela eta prinzipaltasun guzien garaira altxatu izan dela, eta izan guzien gaineko izen bat reze-bitu ukan duela.

**H.** Hala da.

#### MINISTREA.

Goazen aitzina.

**H.** Handik ethorteko da bizien eta hilen iujeatzera: erran nahi da, ezen behin agerturen dela zerutik iujeatzera, igaiten ikusi izan den bezala.

**M.** Iudizioko eguna munduaren finerano ez izanen eta, nola diok hik ezen batzu bizi eta berzeak hil diratela ikusirik ezen gizon guziei ordenatu izan zaiela behin hiltzea?

**H.** Kestione horretara S. Paulek ihardesten du, dioenean ezen orduan bizi diratenak, bertan muthaturen diratela: haien korrupcionea aboli dadinzat eta haien gorputzak arranberri ditezenzat inkorrupibile izateko.

**M.** Hik aditzen duk beraz, muthatze hura hiltze bat bezala hetan izanen dela, zeren haien lehen natura abolituren baitate, berze estatu batetan resuszita ditezenzat.

**H.** Horrela aditzen dut.

**M.** Gure konszientiek rezebitzen dute konsolationerik batre, zeren Iesus Krist munduaren iujeatzera behin ethorteko den?

**H.** Bai guzizko konsolatione handia. Ezen gu segur gara gure salbamendutan baizen eztela agerturen.

**M.** Beraz azken iudizioaren eztiagu beldur izan behar.

**H.** Ez, gure adbokataz eta gure gauza defendatzeko hartu duenaz berze iujeren aitzinera behar eztugunaz geroz.

#### MINISTREA.

Gatozen orain hirugarren partera.

**H.** Hura da Espiritu saindua baithan dugun sinhesteaz.

**M.** Sinheste horrek zer probetxu ekarten drauku?

**H.** Ezagut dezagunzat ezen nola Iainkoak bere Seme Iesus Kristez redemitu eta salbatu ukan baikaitu, hala bere Espiritu sainduaz ere partizipant egiten gaituela redemptione eta salbamendu hunetan.

**M.** Baina zer moldez?

**H.** Nola Iesus Kristen odola baita gure purgationea eta ikutzea, hala Espiritu sainduak odol harzaz behar ditu gure konszientiak ihiztatu, xahu ditezenzat.

**M.** Horrek klarokiago deklaratu behar likek.

**H.** Erran nahi dut, ezen Espiritu sainduak gutan habitatzen denean sendi eraziten draukula Iesus Krist gure Iainaren berthutea. Ezen Iesus Kristek egin drauzkigun gratiak, Espiritu sainduaren illuminationez aditzen ditugu eta hark gure bihotzetan zigilatzen ditu, eta gu gaitu rejeneratzen eta kreatura berri egiten: halako maneraz non haren moienez rezebitzen baititugu Iesus Krist baithan presentatzen zaizkigun on eta gratia guziak.



## MINISTREA.

Zer dugu orain gehiagorik?

**H.** Laurgarren partea, non erraiten baita ezen sinhesten dugula Eliza katolikoa.

**M.** Zer da Eliza katolikoa?

**H.** Hura da, Iainkoak bizitze eternalako ordenatu eta elejitu dituen fidelen konpainia.

**M.** Nezesario da artikulu hori sinhets dezagun?

**H.** Bai, baldin Iesus Kristen herioa, eta oraindrano erran den guzia ezdeustu nahi ezpadugu. Ezen guzietarik heldu den probetxua, Eliza da.

**M.** Hik diok beraz, ezen oraindrano gure salbamenduaren fundamentaz eta kausaz mentione egin izan dela, Iainkoak Iesus Kristen moienez amoriotan rezebitu gaituen bezenbatean, eta konfirmatzen duela gratia haur gutan bere Espiritu sainduaz: baina orain gauza hauen konplimentua eta efektoa deklaritzen dela, seguranza handiagoren emaitzagatik.

**H.** Egia da.

**M.** Zergatik deitzen duk Eliza, Saindu?

**H.** Zeren Iainkoak elejitu dituenak iustificatzen eta purifikatzen baititu saildutasunetara eta inozentiatara, hetan bere gloria argi erazi dezantat. Eta hunez Paulek abisatzen gaitu dioskunean, ezen Kristek redemitu duen Eliza santifikatu ukan duela, glorioso eta makula gabe denzat.

**M.** Zer erran nahi da, Katolikoa, edo unibersala?

**H.** Hitz haur da guri aditzera emaiteko, ezen nola ezpaita fidelen buru bat baizen, hala guziak gorputz bat egin behar diradela, halako maneraz non ezpaitrade anhitz Eliza, baina bat, mundu orotara hedatua.

**M.** Eta Sainduen komunioea zer erran nahi da?

**H.** Hori ezarten da Elizako menbroen artean den unionearen hobeki deklaratzegatik. Halaber hunez aditzera emaiten zaiku, ezen Iaunak bere Elizari egiten drautzan ungi guziak diradela fideletarik batbederaren probetxutan eta salbamendutan, zeren guziek baitute komunione elkarrekin.

## MINISTREA.

Baina hik Elizari atribuitzen draukoan saildutasun hori perfekto da oraino?

**H.** Ez, mundu hunetan bataillatzen deno. Ezen bethi dirade inperfekzionezko relikiak, eta etzaizkio sekulan edekiren, bere buru Iesus Kristekin, zeinek santifikatzen baitu, perfektoki iunkta daiteno.

**M.** Eta Eliza haur ezin berzela ezagut ahal daite sinhestez baizen?

**H.** Iainkoaren Eliza bisiblea ere bada, eta haren ezagutzeko seignaleak eta merzak baditugu: baina hemen bereziki eta espezialki minzo da Iainkoak salbatzeko elejitu duen konpainiaz, zein ezin perfektoki begiz ikus ahal baitaite.

**M.** Zer dugu gehiago?

**H.** Sinhesten dut bekatuen barkamendua.

**M.** Zer aditzen duk barkamenduaz?

**H.** Ezen Iainkoak bere gratiazko ontasunaz fidelei faltak barkatzen eta kitatzen drautzela, haren iudizio aitzinean hek aipa ere eztakizkien, punitionetan.

**M.** Hortik konkludi ahal zezakeagu ezen eztugula gure satisfakzioez merezitzen Iainkoak barka diezagun.

**H.** Hala da: ezen pagamendua Iesus Iaunak egin ukan du, eta pena ekarri ukan du. Guzaz den bezenbatean rekompensarik batre ezin ekar dirogu, baina Iainkoaren gratia eta liberalitate purez, gure falta guziez barkamendu rezebitu behar dugu.

**M.** Zergatik artikulu hori Elizaren ondoan ezarten duk?

**H.** Zeren nehork ezpaitu bekatuen barkamendurik inpetratzen, baldin lehen Iainkoaren populuaekin inkorpora ezpadadi, eta perseberatzen ezpadu unitatean eta komunioean Kristen gorputzarekin, eta halatan Elizako menbro egiazko den.

**M.** Beraz Elizatik kanpoan ezin datek damnationerik eta heriorik baizen.

**H.** Segura da hori: ezen fidelen komunioetik separatzen diradenez apart sekta dagitzentat, eztute salbatu izateko esperanzarik ukaiteko, separationetan dirateno.

**MINISTREA.**

Danzugun orain goitikoa.

H. Sinhesten dut haragiaren resurrekzionea, eta bizitze eternala.

M. Artikulu haur fedearen konfesionean zergatik ezarten da?

H. Erakuts dakigunkat ezen gure felizitatea eztela lurrean konsistitzen. eta ezagutze hunez bi probetxu ditugu. Bata, ikas dezagunzat mundu hunetan herri arrotz batetan bezala iragaiten, hemendik ioan beharraz ardura pensatzen dugularik, eta gure afekzionea lurreko gauzetan ezarten eztugularik. Berzea, Iaunak Iesus Kristez egin draukun gratiaren fruktua eta irabazia betheki senditzen ezpadugu ere, ezgaitezen izit ez gogo gaixta, baina begira gauden patientki rebelationeko egunerano.

M. Resurrekzione haur nola egingen da?

H. Lehen hil diratenek harturen ditukeizte harzara bere leheneko gorpuzt berak, baina berze kalitatetan: erran nahi dut, ezen gehiagorik ezitratela herioren ez korrupcioneren suiet izanen, substantia hura bera izanen badere. Eta orduan oraino bizi diratenak, resusziaturen dituke Iainkoak mirakuloski, erran den muthatze laster harzaz.

M. Eta resurrekzione haur ezta onen eta gaixtoen komun izanen?

H. Bai, baina konditione dibersetan. Ezen batak resusziaturen dirate salbamendutara eta alegranzatara: eta berzeak damnationetara eta heriotara.

M. Zergatik bada mentione egiten da bizitze eternalaz solament, eta ez ifernuaz?

H. Zeren somario hunetan ezpaita mentionerik egiten fidelen konsizientien konsolationetako gauzaz baizen, Iainkoak bere zerbitzariei egiten drauzten onez minzo da solament. Eta ezta deus aipa gaixtoez, zeren hek Iaunaren Resuman ikustekorik ezpaitute.

**MINISTREA.**

Zein fundamenten gainean gure fedea fundatua den dakigunaz geroz, handik konkludi ahal dezakeagu fedea zer den.

H. Egia da. Bada, Fedea da Iainkoak guregana duen amorioaren ezagutze segur bat eta fermu bat, bera bere Ebanjelioan deklaritzen zaikunaren araura ezen gure Aita eta Salbadore dela Iesus Kristen moienez.

M. Eta fede haur buruz ahal dukegu, ala Iainkoaganik rezebitzen dugu?

H. Eskripturak irakasten gaitu ezen fedea Espiritu sainduaren dohain singular bat dela, eta haur experientiaz ere badakusagu.

M. Eta nola?

H. Zeren baitakusagu gure adimendua, fedez rebelatzen zaikun Iainkoaren sapientia espirituala konprehendi ahal dezakeen baino flakua-go dela: eta gure bihotzak difidentiatara, edo gure buruetaratko edo kreaturaretaratko konfidanza gaixtotara emanak diradela. Baina Espiritu sainduak illuminatzen gaitu, neholetan ere berzela ezin adi genetzakeen gauzen aditzera: eta fortifikatzen gaitu seguranzatara, salbamendutako promesak gure bihotzetan inprimituz eta zigilatuz.

M. Fede hunetarik zer on ethorten zaiku, hura dugunean?

H. Hark iustificatzen gaitu Iainkoaren aitzinean bizitze eternala dugunzat.

M. Nola bada? ezta gizona obra onez iustificatzen, sainduki eta Iainkoaren araura bizitzen dela?

H. Baldin norbeit erideiten baliz hain perfektorik, egiaz iusto estima ahal leite: baina zeren guziak bekatore gaixoak baikara, gure dignitatea berzetan bilhatu behar dugu, Iainkoaren iujemenduari ihardestekotz.

**MINISTREA.**

Baina gure obra guziak hain balio gutitako dira, non Iainkoaren aitzinean gratiarik ezin merezi dezaten?

H. Lehenik gure natura eta ethorte propriz egiten ditugun obra guziak, dirade bizioso, eta halakotz ezin dirate Iainkoaren gogarako, baina aitzitik guziak ditu kondemnatzen.

M. Hik diok beraz Iainkoak bere gratian rezebi gaitzakeen baino lehen bekatuik baizen ezin diadigula, arbore gaixto batek fruktu gaixtorik baizen ezin daidian bezala.



**H.** Hala da egia. Ezen gure obrek kanpotik aparentia ederra badute ere, gaixto baizen ezin dirate, bihotza gaixto denaz geroz, zinetara beha baitago Iainkoa.

**M.** Hortik konkluditzen duk hik, kzen gure merituz ezin goga deza-kegula Iainkoa guri ungi egitera: baina geuron kontra tharritatzen baizen eztugula.

**H.** Horrela aditzen dut. Eta halakotz diot, ezen Iainkoak bere miseri-kordia eta ontasun hutsaz, gure obren konsiderationerik batre gabe, bere gratiaz rezebitzen gaituela Iesus Krist Iaunean, haren iustitia inputatzen draukularik gure baliz bezala, eta gure bekatuak inputatzen eztrauzkigularik.

**M.** Nola diok beraz, gizona fedez iustificatzen dela?

**H.** Zeren sinhetsiz eta bihotzeko egiazko konfidanzaz Ebanjelioko promesak rezebituz, sartzen baikara iustitia hunetako posesionean.

**M.** Hik diok ezen Iainkoak nola iustitia haur Ebanjelioan presenta-bezen baitrauku, hala haren rezebitzeko moiena ere fedez dela.

**H.** Hori eta bera.

#### MINISTREA.

Baina Iainkoak behin rezebitu gaituenaz geroz, haren beraren gratiaz egiten ditugun obrak etzaizkio plazent?

**H.** Bai plazent zaizkio, liberalki bere ontasunagatik rezebitzen dituen bezenbatean, eta ez haien dignitateagatik

**M.** Eta nola? eztirade digne rezebi ditzan, Espiritu sainduaganik prozeditzen diradenaz geroz?

**H.** Ez, zeren bethiere gure haragiarenik zerbaiz inperfektione hekin nahasteka baita, eta harzaz makulatuak baitirade.

**M.** Nolatan bada, ezpa zer moienez Iainkoaren gogarako ahal dirate?

**H.** Baldin fedez eginak badirade, erran nahi dut, persona den segur bere konszientian, ezen Iainkoak eztituela bere seberitatean examinatu-ren, baina haien inperfektionea eta makulak Iesus Kristen puritateaz estaliren dituela, eta haren amorekatik perfekt balirade bezala estimaturen dituela.

**M.** Baina halakotz erranen dugu ezen Kristinoa, Iainkoak bere eza-gutzer deithu duen ondoan, bere obrez iustificatzen dela, edo hekgatik merezi duela Iainkoak onhets dezan bizitze eternala demonzat?

**H.** Ez, baina aitzitik kontrariora, ezen eskribatua da bizi denik ezte-la iustificaturen nehor ere Iainkoaren aitzinean. Halakotz othoitze egiteko draukagu, eztadin gurekin iujemendutan sar, ez kontutara ethot.

**M.** Baina halakotz hik eztuk aditzen ezen fidelen obra onak alfer diradela.

**H.** Ez, ezen Iainkoak prometatzen du rekonpensaturen dituela, bai mundu hunetan bai berzean, largoki: baina hura guzia egiten du, zeren bere gratiagatik eta mertxedeagatik on baitarizku, eta estaltzen eta ohortziten baititu gure bekatuak, hezaz memoriorik ere ez egitekotan.

**M.** baina sinhets ahal dezakegu iustifika gaitenezat, obra onik egiten eztugula?

**H.** Hori imposible da. Ezen Iesus Krist baithan sinhstea da, haren halako rezebitzea nolako presentatzen baitzaiku. Eta hark prometatzen drauku ez solament heriotik delibraturen gaituela, eta bere Aitaren gratian ezarriren gaituela bere inozentiaren merituz: baina bere Espiritu sainduaz rejeneraturen ere bagaituela, sainduki bizi erazi gaitzanzat

**M.** Beraz hanbat falta duk, fedeak notxalenzen gaituen non hura bera baita obra on guzien erroa eta fundamenta.

**H.** Hala da egia. Eta halakotz Ebanjelioko doktrina guzia konprehenditzen da bi puntu hautan: Fedean eta Penitentian.

#### MINISTREA.

Zer da Penitentia?

**H.** Penitentia da, gaizkiaz desplazer ukaitea eta ungiaren onhstea Iainkoaren beldurretik prozeditzen dela eta guri gure haragia mortifika eraziten draukula, Iainkoaren zerbitzuan Espiritu sainduaz gida eta goberna gaitenezat.

**M.** Hori duk Iainkoaren zerbitzuaz minzo ginenean egin izan zen dibisionearen bigarren punktua.



H. Bai: eta erran dugu ezen Iainkoaren zerbitzatzeko forma egiazkoa eta lejitimoa dela, haren borondatea obedi dezagun.

M. Eta zergatik?

H. Zeren ezpaitu nahi gure fantasiaren araura zerbitza dezagun, baina bere borondatearen araura.

M. Baina gure bizitzeko eta gobernatzeko zer regla eman ukan drauku?

H. Bere Legea.

M. Eta hark zer kontenitzen du?

H. Bi aldetara partitua da: batak ditu laur manamendu eta berzeak sei: eta guziak hamar dirade.

M. Eta dibisione hori nork egin du?

H. Iainkoak berak, ezen hark Moisesi eman ukan zeraukan bi taula-ten eskribatua, eta erran, ezen hura hamar hitzetan kontenitzen lizela.

M. Zein da lehen taularen argumentua?

H. Iainkoa nola ohoratu behar dugun.

M. Eta bigarren taularena?

H. Gure hurkoekin nola bizi behar dugun, eta zer haek zor drauegun.

#### MINISTREA.

Errak lehen manamendua.

Behadi Israel, Nik nauk hire Iainko Iauna, hi Egipteko lurretik, esklabotasuneko etxetik idoki audana. Eztuk nizaz berze Iainkorik ukanen ene aitzinean.

M. Deklara ezak orain hori nola aditzeko den.

H. Hatsean prefazio bat bezala egiten du Lege guziaren gainean. Ezen bere burua Eternal eta munduaren Kreazale deitzen duenean, manatzeko duen autoritatea erakusten du. Gero, haren doktrinan gozo eriden dezagunzat, erraiten du gure Iainko dela. Ezen gure Iainko eta Salbadore denaz geroz, razoin da gu ere haren populu egiazko eta obedient erakuts gaitezen.

M. Baina Egipteko lurretik idokiteaz minzo denean etzaio espezialki Israeleko populuari minzo?

H. Bai, gorputzaren arauz den bezenbatean: baina bekatuaren kap-tibitate espiritualetik eta deabruaren tiraniatik idoki gaituen bezenbatean, guri guzioi ere jeneralki apertenitzen zaiku.

M. Eta bere Legearen hatsean zergatik gauza horrez mentione egiten du?

H. Zein itzaradoki eta obligatu garen haren borondate onari iarrei-kitera, eta berzela baigunegi zein ingrat ginatkeen aditzera digunzat.

M. Eta lehen manamendu hunetan zer aditzen du somarioki?

H. Hari berari apertenitzen zaion ohorea, hari berari reserba eta renda diezogun, berzetarat aldaratu gabe.

M. Eta zein da hari berari apertenitzen zaion ohorea?

H. Haren beraren adoratzeta, inbokatzea, gure konfidanza guziaren hura baithan ezartea, eta halako berze gauza haren Maiestate sainduari berari apertenitzen zaizkanak

M. Zergatik erraiten du, Ene aitzinean?

H. Zeren hark guzia ikusten baitu, eta hura baita gizonen barneko pensamendu sekretuen ere iuje: aditzera emaiten eta deklaritzen drauku, ezen eztuela nahi kanpotiko konfesioez hura Iainko eduki dezagun sola-ment, baina bihotz barneko afektioez egiazkoz ere bai.

#### MINISTREA.

Errak orain bigarren manamendua

H. Eztraukak eurorri eginen imajina ebakirik, ez ezeinere figurarik, zeruan garaian diraden gauzenik, edo behean lurrean, edo uretan lupean diradenenik. Eztituk hek adoraturen ez ohoraturen.

M. Defendatzen du xoil imajinarik batre egin eztadin?

H. Ez: baina defendatzen du imajinarik egin eztadin Iainkoaren figu-ratzeko, edo adoratzeko.

M. Zergatik ezta sori Iainkoaren representatzea bisibleki?



**H.** Zeren ezpaita konformitaterik batre Iainkoaren eta imajinaren artean: ezen Iainkoa Espiritu eternal, da eta inkonprehensible, eta imajina, material, korporal, korruptible eta bisible.

**M.** Hik aditzen duk beraz, haren Maiestateari desohore egitea dela, haren molde hartan imajinaz representatzea.

**H.** Egia da.

**M.** Zer adoratione mota hemen kondenatzen da?

**H.** Norbeit imajina edo figura baten aitzinean presentatzen denean haren aitzinean othoitz egitera, belhaurikatzeraz edo gurtzera, edo zerbeit haren ohoretako seinaleren egitera, Iainkoa han erakusten balitzaiku bezala.

**M.** Eztiagu beraz aditu behar ezen imajina ebakite, edo pintatze guzia jeneralki defendatzen dela: baina solament Iainkoaren zerbitzatze-ko edo gauza bisibletan haren ohoratzeke, edo nola nahi den idolatriatan usatzeko egiten den imajina guzia.

**H.** Hala da.

**M.** Zer finetara harturen dugu manamendu haur.

**H.** Nola lehen manamenduan deklaritzen baitu Iainkoak ezen bera dela berzerik gabe adoratu behar dena: halaber orain erakusten drauku zein den egiazki adoratzeko forma, superstitione eta manera karnal guzietarik retira gaitezenzat.

#### MINISTREA.

Goazen aitzina.

**H.** Gero mehatxu bat ezarten du dioela, Ezen ni nauk hire Iainko Iauna, Iainko borthitza, ielosia, aiten inikitatea haurren gainean bisitatzen dudana, hirugarren eta laugarren jenerationerano niri gaitz dariztenetan.

**M.** Zergatik egiten du mentione bere indarraz?

**H.** Aditzera eman dezanzat ezen bere gloriaren mantenitzeko asko botheretsu dela.

**M.** Ielosiazko hitzaz zer erran nahi du?

**H.** Bere kiderik edo lagunik ezin sufri dezakeela. Ezen nola bere ontasun handiagatik bera guri eman izan baitzaiku, hala nahi du gu ere osoki haren garen. Eta haur da gure arimen kastetatea, hari konsekratu eta dedikatu izatea. Berzalde, paillardiza espiritual bat da harenganik edozein superstitionetara aldaratzea.

**M.** Nola aditzeko da ezen aiten inikitatea haurren gainean punitzen duela?

**H.** Hobeki beldur eraziteagatik, erraiten du, ezen ez tala hura ofensatzen dutenez mendekaturen solament, baina haien arraza ere maradikaturen duela haien ondoan.

**M.** Eta hori ezta Iainkoaren iustitiaren kontra, batak berzeakgatik punitzen dituenen?

**H.** Baldin leinu humanoaren konditionea konsidera badezagu, kessione hori hustu date. Ezen naturaz guziak gara maradikatuak, eta ezin Iainkoaz arrangura ahal gaitzek, garen bezala utziten gaituenean. Eta nola bere gratia eta amorioa erakusten baitu bere zerbitzarien gainean, haien haurrak benedikatzten dituenen. Halaber haren hiraren eta mendekioaren seignale bat da gaixtoen gainean, haien hazia malediktionetan uziten duenean.

**M.** Zer dio gehiago?

**H.** Emetasunez ere inzita gaitzanzat, kontinuatzen du bere proposa eta dio. Ni nauk miserikordia egiten drauedana milla jenerationetarano niri on dariztenei, eta ene manamenduak begiratzen dituztenei.

**M.** Aditzen du ezen fidelaren obedientiak salbaturen duela haren arraza guzia, baldin gaixto bada ere?

**H.** Ez: baina hanbatetarano bere fideletara hedaturen duela bere ontasuna, non haien amorekatik, haien haurrei ere bere burua ezagut eraziren baitraue: eta ez solament haragiaren araez prospera eraziren dituela: baina bere Espirituaz sanktifikaturen ere badituela, haren borondatearen egitera obedient diraten bezala.

**M.** Baina ez tuk hori perpetual.

**H.** Egia da. Ezen nola Iaunak reserbatzen baitu gaixtoen haurrei miserikordia egiteko libertatea hala fidelen haurretan ere badaduka plazer dituenen elejitzeko edo iraitzeko botherea. Badarik ere hala guziei thornu



emaiten draue, non nehork ezagut ahal baitezake, ezen promes haur ezte-  
la bano ez enganiotako.

**M.** Zergatik hemen egiten du mentione milla jenerationez, eta meha-  
txuan ez hiruz edo laurez baizen?

**H.** Hori egiten du aditzera emaitzagarri, ezen ungiz ere emetasunez  
eta miseriakordiaz usatzera prestago dela ezen ez seberitatez edo gogorta-  
sunez: berak ere testifikatzen duen bezala, ezen ungi egitera gogabera  
dela, eta aserretzera berantkor.

#### MINISTREA.

Gatozen orain hirugarren manamendura.

**H.** Eztuk eure Iainko Iaunaren izena banoki harturen.

**M.** Zer erran nahi du horrez?

**H.** Defendatzen drauku, eztezagun Iainkoaren izenaz abusa, ez sola-  
ment desperiuruz, baina ezeta zin arinetan eta alferretan ere.

**M.** Eta, bada lejitimoki Iainkoaren izenaz iuratzeko moienik?

**H.** Bai, iuramendu nezesarioetan: hala nola egiaren sustengatzega-  
tik, beharra denean, eta karitatearen eta egiatzko bakearen gure artean  
entetenitzegatik.

**M.** Iainkoaren desohoretan egiten diraden iuramenduak korrejitu  
baizen eztu deus berzerik nahi?

**H.** Batez erraiten draukunean, guziez irakasten gaitu jeneralki, ezte-  
zagun Iainkoaren izena iagoitik aipa ere beldurekin eta humilitatekin  
baizen, glorifika dezagun. Ezen nola saindu baita eta digne, guk ere  
haren izena hala aipatu behar dugu, non irudi ere eztakion nehori ezen  
menospreziatzen dugula edo haren ansiarik eztugula.

**M.** Nolatan hori egin ahal dezakegu?

**H.** Baldin Iainkoaz, ez haren obrez, pensa ezpadezagu, edo minza  
ezpagaitz haren ohoretan eta laudoriotan baizen.

**M.** Hunen gainean zer dugu gehiagorik?

**H.** Mehatxu bat ezarten du, ezen Iaunak eztuela inozentetan eta  
hogen-gabetan edukiren haren izena banoki harturen duena.

**M.** Berzetan deklaritzen duenaren gainean jeneralki ezen Legea  
hautsren duten guziak punituren dituela, zer da hemen gehiago?

**H.** Mehatxu hunez deklaratu nahi ukan du zenbat estimatzen duen  
bere izenaren gloria, erraiten duenean, ezen eztuela sufrituren nehork  
hura menosprezia dezan, eta menospreziakaleak punituren dituela: eta  
haur egiten du hura reberentiatanago eduki dezagun.

#### MINISTREA.

Dugun orain laugarren manamendua.

**H.** Aizen orhoit Sabbath egunaz, hura sanktifika dezagun. Sei egu-  
nez traillaturen aiz, eta eginen duk eure obra guzia. Baina zarpigarrena,  
hire Iainko Iaunaren Sabbathoa duk. Eztuk eginen hartan obrarik batre,  
ez hik, ez hire semek, ez hire alabak, ez hire muthillek, ez hire neskatok,  
ez hire idik, ez hire astok, ez hire borthez barnetik habitatzen den estran-  
jerek. Ezen sei egunez egin zitik Iainkoak zerua eta lurra eta zerere hetan  
kontenitzen baita: zarpigarrenean reposatu izan duk. Harren benedikatu  
ukan dik Sabbath eguna eta sanktifikatu.

**M.** Manatzen gaitu sei egunez trailla gaitzen, zarpigarrenean  
reposa gaitzen?

**H.** Ez sinpleki: baina sei egunez traillatzeko konjit emaiten due-  
nean, zarpigarrena reserbatzen du eta reposatzeko destinatzen.

**M.** Defendatzen drauku bada langite guzia asteko egunetarik batetan?

**H.** Manamendu hune badu zerbaite konsideratione berezirik: ezen  
Sabbathoaren obserbationea Legeko zeremonia anzianoen parte bat da:  
eta Iesus Kristen ethortez abolitu izan da.

**M.** Erran nahi duk ezen manamendu haur Iuduei apertenitzen zaie-  
la, eta Testamentu zaharreko denborakotzat emana dela?

**H.** Bai zeremonial den bezenbatean.

**M.** Eta nola, badu deus zeremonial eztenik?

**H.** Hirur gauzagarri egin izan da.

**M.** Zein dirade hek?



**H.** Repos espiritualaren figuratzeko: Elizako politiareen entretenitze-ko: eta zerbitzarien solajeatzeko.

**M.** Eta Zer aditzen duk repos espiritualaz?

**H.** Gure obra propietarik zesatzea, Iaunak gutan obra dezanat.

**M.** Nolatan hori egiten da?

**H.** Gure haragia mortifikatuz, erran nahi dut, gure naturaz renuntiatuz, Iainkoak bere Espirituaz goberna gaitzanzat.

**M.** Eta hori astean egun batez baizen ezta egin behar?

**H.** Ardura egin behar da. Ezen hatsen garenetik finerano kontinuatuz behar dugu gure mende guzian.

**M.** Zergatik bada egun iakin bat horren figuratzeko asignatzen da?

**H.** Ezta nezesario figuratzen duena gauza guzietan egiarekin bardin dadin, baina asko da zerbait gauzatan elkar aithor eta irudi duten.

**M.** Zergatik zazpigarrrena hartakotzat lehen ordenatzen da ezen ez zenbeit berze egunik?

**H.** Zeren zazpitako kontuak perfektione signifkatzten baitu Eskripturan: eta halakotz da hura karazko perpetuitatearen denotatzeko. Halaber abisatzen gaitu, ezen gure repos espiritualaz ez dela hatsen baizen mundu hunetan garen, eta ez dela konplituren mundu hunetarik ilki gaitzekeno.

#### MINISTREA.

Baina gure Iaunak hemen allegatzen duen razoina zer erran nahi da, Ezen reposatu behar dugula, hura reposatu izan den bezala.

**H.** Sei egunez bere obra guziak kreatu zituen ondoan bere obren konsideratzeko berezi ukan du zazpigarrrena eta hartara inzitago gaitzanzat, bere exenplua allegatzen drauku. Ezen ezta deus hain desiratzekorik, nola haren irudira konforme izatea.

**M.** Egun oroz Iainkoaren obrak mediatu behar dirade, ala astean egun batez asko da?

**H.** Hori egun oroz egin behar dena da: baina gure infirmitateagatik egun iakin bat da hartakotzat espezialki berezia Eta haur da nik erran dudana politia.

**M.** Eta egun hartan zer politia nehork eduki behar du?

**H.** Orduan behar da populua bil dadin Iainkoaren egian instruitu izatera, othoitza komunegitara, eta zein bere fedez eta relijioneaz testifikatzera.

**M.** Nola aditzen duk, Iaunak manamendu haur zerbitzarien solajeamenduagatik ere eman duela?

**H.** Berzeren suiekctione diradenei zerbait pausu eman dakienzat. Eta haur politia komunaren edukiteko ere on da. Ezen egun bat pausatzeko asignaturik denean, goitiko denboran kostumatzen da batbedera traillaun.

**M.** Orain danzugun nola manamendu haur guri apertenitzen zaikun.

**H.** Zeremoniaz den bezenbatean, hura abolitu eta iragan da. Ezen konplimendua Iesus Krist baithan dugu.

**M.** Zer moldez?

**H.** Zeren haren herioaren berthutez kruzifikatzen baita gure gizon zaharra, eta zeren haren resurrekctioneaz resuszitatzen baikara bizitze berritara.

**M.** Zer da bada manamendu hunetarik gelditzen zaikuna

**H.** Iainkoaren hitzaren enzuteko, othoitza publikoen egiteko eta Sakramenduen administratzeko Elizan ordenatua den politia begira dezagun, eta fidelen artean den politia espiritualaz hauts eztezagun.

**M.** Eta figuratzen zuen bezenbatean etzaiku deus probetxatzen?

**H.** Bai: ezen bere egiari aplikatu behar zaio. Eta hura date, baldin Kristen menbro eginik, eta gutarik diraden obrak utzirik, Iainkoari gure buruak gobernatzera utzi badietzakogu.

#### MINISTREA.

Gatozen bigarren Taulara.

**H.** Haren hatsea da, Ohoraitzak eure aita eta ama

**M.** Zer aditzen duk hik ohoratzeaz?





H Haurrak diraden humil eta obedient bere aita-ametara, haiei ohore eta reberentia ekarten drauelarik, aiutatzen dituztelarik, eta haien manuko diradelarik itzeradoki diraden bezala.

M. Hots aitzina.

H. Gero manamendu huni Iainkoak eratzekiten drauka promes bat, dioela, Hire egunak luza ditezenzat, eure Iainko Iaunak emaiten drauan lurraren gainean.

M. Zer erran nahi da hori?

H. Ezen bizitze luze Iainkoak emanen drauela aita-amak bide bezala ohoratzen dituztenei.

M. Bizitze haur banbat miseriaz bethea denaren gainean: nola Iainkoak gratia espezialez gizonari prometatzen draua ezen luzaki bizi ezaizren duela?

H. Mundu hunetako bizitzea hanbat miseriatara suiet badere, fidelarentzat Iainkoaren benedikzione bat da: eta berzerik ezpaliz ere, zeren Iainkoak hek hemen entretenituz, bere amorio paternala erakusten baitraue.

M. Eta berze aldera, erranen dugu ezen gazterik hiltzen dena, Iainkoaz maradikatua dela?

H. Ez: baina aitzitik gerthaturen da batzutan, Iainkoak maiten dituenak, sarrienik mundu hunetarik retiraturen baitituke.

M. Eta hori egiten duenean, nola bere promesa begiratzen du?

H. Iainkoak mundu hunetan prometatzen drauzkigun on guziak, konditionerekin rezebitu behar ditugu gure arimek on eta behar duten bezenbatean. Ezen gauza guti bat lizate baldin haur bethiere aitzinean ioaiten ezpaliz.

M. Eta zer izanen da aita-ametara desobedient izanen diradenez?

H. Hek eztitu Iainkoak solament azken iudizioan punituren: baina hemen ere mendekaturen da haien gorputzetan, edo dela goiz hil eraziz, edo miserableki bizitzera utziz, edo zerbait berze moldez.

M. Promes hunetan, ezta Kanango lurraz espezialki minzo?

H. Bai, Israeleko haurrez den bezenbatean: baina orain hitz haur jeneralkiago hartu behar da. Ezen zein ere lekutan egoiten baikara, lurra harena denaz geroz, gure babitationea ere hark emaiten drauku.

M. Manu horretarik bada deus gehiago?

H. Aita-amez baizen, ez minzo izanagatik aditu behar dirade superior guziak, razoin bat bera denaz geroz.

M. Eta zer razoin?

H. Zeren Iainkoak gehientasuna eman ukan baitraue. Ezen ezta aita-amen, ez prinzien, ez goitiko superioren autoritaterik batre, Iainkoaren ordenanzaz baizen.

#### MINISTREA.

Errak seigarren manamendua.

H. Eztuk hilen.

M. Hiltzale izatea baizen eztu defendatzen?

H. Bai. Ezen Iainkoa bera minzo denaz geroz, eztrauku lege ezarten kanpotiko obren gainean solament, baina prinzipalki gure bihotzetako afekzionen gainean

M. Hik aditzen duk beraz, badela hiltze mota barnezko bat, Iainkoak manamendu hunetan defendatzen duenik.

H. Hala da. Ezen gaitzeriztea eta borondate gaitza, bai eta nehorik gaizki egiteko guthizia guzia, nehoren hiltze estimatzen da Iainkoaren aitzinean.

M. Eta asko da nehorik gaitzerizterik edo afekzione gaixtorik ez ekartea?

H. Ez: ezen Iainkoak gaitzeriztea kondemnatzen duenean, aditzera emaiten drauku, manatzen gaituela elkar onhets dezagun, afekzione onez eta hipokrisia gabe, batak berzearen ona prokura dezagun.

M. Errak zazpigarren manamendua.

H. Eztuk paillardaturen

M. Deklara ezak zer den horretako somarioa.

H. Paillardiza guzia dela gauza maradikatua Iainkoaren aitzinean. Eta halakotz, baldin haren hira gure gainera erekarri nahi ezpadugu, hartarik begiratu behar garela.



**M.** Eta manamendu hori ezta aitzinago hedatzen?

**H.** Bethiere konsideratu behar dugu Legea ezarten duenaren natura, ezen hura, eztago beha kanpoko obretara solament, baina bihotzeko afekzionaren eskez dago.

**M.** Zer dakarke bada gehiago?

**H.** Gure gorputzak eta arimak Espiritu tenple diradenaz geroz, bata eta berzea xahu eta pur begira ditzagun: eta garen kaste, ez eginez solament, baina desirez, hitzez, eta jestuz: hala non, paillardizari dagokan manieraz gutan deus makulaturik ezten.

#### MINISTREA.

Gatozen zortzigarnera.

**H.** Eztuk ebatsiren.

**M.** Manamendu horrek iustitiaz punitzen diraden ohoinkeriak defendatzen ditu, ala aitzinago hedatzen da?

**H.** Berzeren onaren gureganatzeko moien gaixto guzia defendatzen drauku: edo dela bortxaz, edo enganioz, edo Iainkoari plazent etzaion berze moldez.

**M.** Asko da eginetik begiratzea, ala borondatea hemen ere aditzen da?

**H.** Bethiere hunetara ethorri behar da, zeren legea ezarten duena espiritual baita, ezen eztela sinpleki ohoinkeria exterioraz minzo solament, baina berzeren damutan onhasun ukaiteko entrepresa, deliberatione, borondate eta enseiu guziaz.

**M.** Zer bada egiteko da manamendu hunen begiratzekotz?

**H.** Gure eginbidea egin behar dugu eta prokuratu nori berea begira dakion.

**M.** Zein da bedratzigarren manamendua?

**H.** Eure hurkoaren kontra testimoniaje falsurik eztuk erranen.

**M.** Defendatzen drauku iudiziotan ez desperiuru izatea, ala neholere hurkoaren kontra gezurrik ez erraitea?

**H.** Mota batez minzo da, baina harzaz doktrina jeneral bat emaiten drauku, eta hura da, Eztezagun falsuki gure hurkoa gaitzerran, eta ezta-kion gure gaitz erraiteaz bere onetan ez bere faman kalterik ethor.

**M.** Zergatik bereziki desperiuru publikoez minzo da?

**H.** Guk, gaitzerraiteko eta difamatzeko bitio haur hastio handitana-go dugunzat, aditzera emaiten draukularik ezen nor ere bere hurkoaren falsuki kalumniatzen, edo difamatzen kostumatzen baita, erraxki iudiziotan desperiuratzera ere ethorriren dela.

**M.** Defendatzen du nehoen kontra gaizki minzatzea, ala gaizki pensatzea ere bai?

**H.** Bai bata bai berzea, lehen erran diraden razoinen araura. Ezen gizonen aitzinean egitea gaizki dena, pensatzea ere gaizki da Iainkoaren aitzinean.

**M.** Danzugun bada somarioki horrek zer erran nahi duen.

**H.** Irakasten gaitu ezgaren gaizki iujeatzera eta difamatzera emanak, baina egiak emaiten duen lekuran estimacione on gure hurkoaz ukaiten, eta gure hitzetan eta maneretan haren fama onaren begiratzen enseia gaitzen.

#### MINISTREA.

Gatozen orain azken manamendura.

**H.** Eztuk guthiziatuaren eure hurkoaren etxea: eztuk guthiziatuaren eure hurkoaren emaztea, ez muthilla, ez neskatoa, ez idia, ez astoa, ez haren den gauzarik batre.

**M.** Lege guzia espiritual denaz geroz, hik hanbatetan erran duan bezala, eta berze manamenduak ez obra exterioren solament, baina barneko afekzionen ere reglatzeko diradenaz geroz, zer gehiago hemen erraiten da?

**H.** Berze manamenduetan Iaunak nahi ukan ditu gure afekzioneak eta borondateak reglatu eta drezatu: hemen, lege eman nahi ukan draue gure pensamenduei, zeren hek berekin baitute zerbañ guthizia eta desir, borondate pausatze batetara heltzen ezpadirade ere.



**M.** Aditzen duk hik bekatu dela, persona fidelari gogora ethor ahal lekidion tentationerik xipiena ere, hartan gogorik ezar ezpadeza eta resistenti badiozo, eta batre konsenti ezpadeza ere?

**H.** Gauza segura da ezen pensamendu gaixto guziak, gure haragiaren infirmitatetik heldu diradela, konsentimendurik ezar ezpadezagu ere: baina nik erraiten dudana da, ezen manamendu haur minzo dela, gogorik egin gabe ere nehoren bihotza kilikatzen eta inzitutzen duten guthiziez, arrest egitera ethorten ezpadirade ere.

**M.** Hik diok beraz, ezen nola gogoan konsentimendurekin arrestatzen eta deliberatzen diraden afektione gaixtoak oraindrano hunki eta kondenatu izan baitirade, hala manamendu hunetan ere Iaunak halako perfektione bat gureganik nahi duela baieta galdegiten, non gure bihotzetan sar ere eztaadin, gaizkira inzita dezakeen guthiziarik batre.

**H.** Egia da.

**M.** Lege guziaren somario bat egin ahal ginezake orain?

**H.** Bai, aisitki ere, bi artikulutara hura itzuliz: eta lehena da, Onhets dezagun Iainkoa, gure bihotz guziaz eta gure arima guziaz eta gure ahal guziez. Berzea da, Onhets dezagun gure hurkoa, gure buruak bezala.

**M.** Nola da Iainkoaren egiazki onhestea?

**H.** Baldin hura onhets badezagu Iainko bezala, erran nahi dut, baldin hura Iaunetan, Iabetan, Salbadoretan eta Aitan ezagut eta eduki badezagu: eta onheste hunekin behar dirade beldurra, ohorea, konfidantza eta obedientia.

**M.** Zer erran nahi da gure bihotz guziaz, gure arima guziaz eta gure ahal guziez?

**H.** Erran nahi da, Onhets dezagun Iainkoa halako zelo eta afektione batez, eta halako gorthasun batez, non gutan ezten ezineri desirik, ezineri borondaterik, ezineri enseiurik, ez pensamendurik onherizte hunen kontretakorik.

**M.** Eta bigarren artikulua zer erran nahi da?

**H.** Hala nola hanbat emanak baikara gure buruen onhestera, non afektione hunek goitiko guziak iragaiten baititu, halaber gure hurkoaginatko karitateak ere hala leku duen gure bihotzetan, non hark gida eta goberna baikaitzake, eta gure pensamenduen eta obren regla baitate.

**M.** Nor aditzen duk hik gure hurkoaz?

**H.** Ez solament gure ahaideak eta adiskideak, edo gurekin familiaritate dutenak, baina ezagutzen ere eztitugunak eta gure etsaiak ere.

**M.** Eta hek zer koniunktione dute gurekin?

**H.** Iainkoak guzien artean ezarri duen koniunktioneaz lothuak dirade gurekin: eta hura da halako non nehoren malitiaz ezin aboli ez hauts baitaite.

**M.** Hik erran nahi duk beraz ezen baldin norbeitek gaitz badarizku, hura haren propritik dela, baina halakotz, Iainkoaren ordenanzaren arauz, bethi gure hurko dela, eta halakotan eduki ere behar dugula.

**H.** Hala da egia.

**M.** Legeak egiazki Iainkoaren zerbitzatzeko forma erakusten duenaz geroz, Kristinoak ezta bizi behar, hark manatzen duen bezala?

**H.** Bai: baina halako infirmitatea da gutan guziotan, non nehork ezin bere eginbidea egin baitezake perfektoki.

**M.** Zergatik bada Iaunak, gure ahala iragaiten duen perfektione bat gureganik galdegiten du?

**H.** Ezta deus galdegiten, gu egitera itzeradoki ezgarenik. Goitikora, baldin Legnean manatzen zaikun formaren araura bizitzen zinez enseia bagaitz, perfektionezko eginbidetik urrun bagara ere, Iaunak eztrauku eskaz garena inputatzen ez kontatzen.

**M.** Gizon guziez minzo aiz jeneralki ala ez fidelez baizen?

**H.** Iainkoaren Espirituaz rejeneratu ezten gizonak, den punturik xipiena ezin egiten has ere dezake. Gehiago, Legetik zenbeit parte konplitzen luenik erideiten baliz ere, ezin halakotz kito ahal lizate. Ezen Iainkoak maradikatu deklaritzen ditu Legean diraden gauza guziak konplituren eztituztenak.

**MINISTREA.**

Horretarik konkluditzeko diagu, ezen bi gizon mota diraden bezala, bi ofizio dituela Legeak.

**H.** Egia da. Ezen eztu infideletan deus berzerik egiten, hek Iainkoaren aitzinean exkusa gabe egiten baititu baizen. Eta haur da S. Paulek erraiten duena, Legea herioaren eta damnationearen ministerio deitzen duenean. Baina fidelak baithara berze ofizio du.

**M.** Eta zein?

**H.** Lehenik, zeren Legeak irakasten drauenean nola bere obrez ezin iustificari daitezken, humiliatuz disposatzen baititu bere salbamenduaren Iesus Krist baithan bilhatzera. Gero egin ahal dezaketen baino gehiago Legeak galdegiten duenean, harraz abisatzen ditu, Iaunari othoitz dagioten indar eta bothere eman diezen, eta bere buruak bethiere hogendun ezagut eraziten drauzte, urgulutsu ezitezenzat. Berzalde, bridaturik bezala dadutza fidelak, Iainkoaren beldurrean eduki ditzanzat.

**M.** Erranen diagu beraz, ezen mundu hunetan gareno iagoitik Legea konplitzen ezpadugu ere, eztela gauza mengoa gabea, zeren gureganik halako perfektione bat galdegiten duen. Ezen halatan irakasten giatik, zer xedetara ari behar dugun, gutarik batbedera bethi hartara, Iainkoak egin draukan gratiaren araeuz, heltzen enseia eta abanza dadinzat.

**H.** Hala da egia.

**M.** Eta eztugu iustitia guziaren regla perfekta Legean?

**H.** Bai hanbat perfekta, non ezpaitu Iainkoak gureganik deus berzerik galdegiten hari garreitzan baizen, baina harraz berzalde zerere gizonak egiten baitu, hura guzia arbuiazen eta iraitzen du. Ezen ezta haren gogarako sakrifiziorik obedientia baizen.

**M.** Zer probetxu egiten dute beraz Profetek eta Apostoluek egiten dituzten admonitione remonstranza, manamendu eta exhortatione guziek?

**H.** Hek eztirade Legearen egiazko deklaratione baizen zein ezpaitirade haren obedientiatik gure harzaragarri, baina hartara gidagarri.

**M.** Baina ezтик nehoren bokatione partikularez mentionerik egiten.

**H.** Manatzen duenean nori berea renda dakion, handik erraxki konkludi ahal dezakegu, gure batbederaren bizitze motan, zerik den gure

eginbidea. Eta badugu berzalde, erran den bezala, Eskriptura guzian manamenduetarik batbederaren deklarationea. Ezen Iaunak hemen somarioki ezarri duena, berzetan luzakiago eta xehekiago traktatzen du, konplutuki instruituak garenzat.

**MINISTREA.**

Iainkoaren ohoratzeko bigarren parteaz, obedientiaz, asko luzaki minzatu garenaz geroz, minza gaitezen orain hirugarren parteaz.

**H.** Hirugarrena, gure behar guzietan Iainkoaren inbokatzea dela erran dugu.

**M.** Aditzen duk ezen hura bera inbokatu behar dela?

**H.** Bai: ezen hori da haren Dibinitateari dagokan ohore propri bat, eta horren galdez dago.

**M.** Eta hori horrela bada, zer moldez permetitzen zaiku gure aiutatan gizonen rekeritzea?

**H.** Bi gauza hautan, diferentia handia da: ezen Iainkoa inbokatzen dugunean testifikatzen dugu, ezen deus onik eztugula uste harenganik baizen, eta ezgarela berzetara retiratzen: badarik ere gizonen aiuta bilhartzten dugu hark berak permetitzen draukun bezenbatean, eta haaci gure aiutatzeko bothere eta moien emaiten drauen bezenbatean.

**M.** Hik aditzen duk beraz ezen gizonetarik aiuta galdatzea, eztela Iainkoa bera inbokatu behar dugunaren kontra, zeren ezpaitugu gure konfidanza hetan ezarten ez hetara buru egiten, Iainkoak bere onen administrazale eta dispenser gure aiutatan ordenatu dituen bezenbatean baizen.

**H.** Hala da. Eta zerere ungi hetarik ethorten baitzaiku, Iainkoaganik beraganik bezala rezebitu behar dugu, nola egiazki hark igorten baitrauku haien eskuz.

**M.** Eta eztrauegu gizonei eskerrik eman behar egiten drauzkiguten ungiez eta plazerez?

**H.** Bai: are berze razoinik ezpaliz ere zeren Iainkoak bere onetarik haien eskuz guri komunikatzeko ohore hura egiten drauen, ezen hala egiten duenean, hetara ere obligatzen gaitu eta nahi du hetara itzeradoki garen.



**M.** Hortik posible da konkludi ahal dezagun, ezen Aingerurik ez mundu hunetarik berzerat ioan diraden sainduetarik batre eztugula inbokatzeke.

**H.** Bai: Ezen Iainkoak saindu hilei gure aiutzeko kargurik nehone-re eztraue eman. Aingeruez den bezenbatean, Iainkoa gure probetxutan hezaz zerbizatzen badere eztu nahi ordea hek inboka ditzagun, ez hetara retira gaitzen.

**M.** Horlatan hik erran nahi duk ezen Iainkoak berak ezarri ukan duen ordenanzaren araura ezten guzia, haren borondatearen kontra dela.

**H.** Hala da ezen Iainkoak berak emaiten draukunaz kontent ezpagara, seignale segura da ezen infidel garela. Gehiago, baldin gure rekursa haren manamenduaren araura Iainkoagana beragana ukan bidean, Saindu hiletara edo Aingeruetara retira bagaitz, edo zerbait konfidanza hetan ezar badezagu, idolatriatan erorten gara, Iainkoak beretzat ber reserbatu duena haei atribuitzen eta emaiten drauegun bezenbatean.

#### MINISTREA.

Danzugun orain Iainkoari othoitz egiteko maneraz. Asko da mihiz othoitz egitea, ala espirituua eta bihotza ere nezesario dirade?

**H.** Ezta mihia bethi nezesario, baina adimendua eta afektioea bethiere behar dirade.

**M.** Nolatan hori forogaturen duk?

**H.** Iainkoa, nola Espiritu baita, espirituaren eta bihotzaren galdez dago, eta prinzipalki orationean, zeinez harekin komunikatione baitugu. Eta halakotz da, ezpaitraue prometatzen hurbil izanen zaiela egiazki inbokaturen dutenei baizen: eta kontrariora, maradikatzen ditu fiktionez eta hipokrisiaz afektionerik gabe hari othoitz eginen draukaten guziak.

**M.** Beraz mihi hutsez afektioea gabe erraiten diraden orationeak alfer dituk.

**H.** Eztirade alfer solament, baina Iainkoari desplazent ere bazaizkio.

**M.** Bada othoitzzerik egitean nolako afektioea behar dugu?

**H.** Lehenik behar da ezagut eta sendi dezagun gure miseria eta paubrezia, gero sendimendu hunek enjendra dezan gutan desplazer bat eta

herstura bat: gehiago behar dugu, gure bihotzak othoitz egitera iraxeki eta enflama ditzakeen Iainkoaganik gratia inpetratzeko desir bat.

**M.** Eta hori gure naturatik heldu da, hala Iainkoaren gratiatik?

**H.** Iainkoak berak gutan obra dezan behar da: ezen gu sorregi gara: baina Iainkoaren Espirituak erran ezin daitezkeen suspirioetara iuzitatzen gaitu, eta formatzen du gure bihotzetan, Iainkoak berak gureganik orationean galdegiten duen bezalako afektioea bat eta zelo bat, S. Paulek erraiten duen bezala.

**M.** Eta horrez erran nahi duk ezen Iainkoaren Espirituaren begira egon behar dugula, eta othoitz egitera ezgarela solizitatu eta inzitatu behar?

**H.** Ez: aitzitik kontrarioa: ezen fidelek bere buruak othoitz egitera hotz eta nagi ezagutzen dituztenean, behar da othoitz dagioten Iaunari, nahi dituen othoi, bere Espirituaz inflamatu eta behar bezala othoitz egitera moldatu.

**M.** Baina hik eztuk aditzen othoitz egitean mihia guziz alfer dela.

**H.** Ez: ezen anhitzetan mihiak aiutatzen du espirituua eta Iainkoaganik aldaratzetik begiratzen. Eta berzalde, gure berze menbro guzien gainetik mihia Iainkoaren ohoretan enplegatzeke eman izan zaikunaz geroz, razoin da haren ahal guzia gauza orotan hartara aplikatu dadin: eta anhitzetan, bihotzeko afektioea handiak uste gabeen ere mihia minza eraziten du.

**M.** Hori horrela denaz geroz, zer emendio du nehork berak aditzen ezten lengoajez othoitz egitea?

**H.** Hura ezta othoitz egite, baina hipokrisia eta Iainkoaren desohoratze eta trufatze bat da.

#### MINISTREA.

Iainkoari othoitz egiten draukagunean, probetxaturen garen, ala ez, iakin gabe benturan othoitz egin behar dugu, ala segur behar gara izan gure othoitzak enzunen diradela.

**H.** Gure othoitz guzietan fundament haur behar dugu bethiere, ezen Iainkoak enzunen gaituela, eta galdegiten dugun guzia beharra dugun lekurano emanen draukula: halakotz dio S.Paulek, ezen Iainkoaren



egiazki inbokatzea fedetik heldu dela. Ezen baldin Iainkoaren ontasunaz eta gureganako amorioaz segura ezpagaitez, ezin hura egiazki inboka dezakegu.

**M.** Zer izanen da bada dudan othoitz egiten dutenez dudatzen dutelarik Iainkoak enzunen dituen ez bai, ala ez?

**H.** Halako othoitzak alfer dirade eta bano, zeren ezpaitirade ezeinere promesen gainean fundatuak. Ezen sinhesterekin eska gaitezen manua dugu, baieta promesa, ezen enzunen garela.

**M.** Baina dakigun, nondik ezpa nolatan ahal gendukeen konfidanza hori, eta Iainkoaren aitzinean presentatzeko hardieza, ikusirik ezen guziz indigne eta bekatore garela?

**H.** Lehenik baditugu promesak, eta gu indigne izanagatik, dudatu gabe, hetan fundatu eta fermatu behar gara. Gero berzalde, baldin Iainkoaren haur bagara, berak bulkatzen eta inzitutzen gaitu bere Espirituaz, harengana gure egiazko Aitagana bezala familiarki retira gaitezen. Eta zeren bekatore gaixo eta lurreko xixari baizen ezpaikara, haren maiestate handiaren aitzinean konparitzera beldur ezgarenzat, emaiten drauku Ararteko, Iesus Krist bere Seme gure Iauna, haren amorekatik sartze ukunik, eztagigun dudarik ezen gratia eginen zaikula.

**M.** Eta badadukak hik ezen eztugula Iainkoa inbokatu behar Iesus Krist Iaunaren izenean baizen?

**H.** Hala aditzen dut nik. Ezen hala dugu manu expresa promesarekin, ezen haren interzesionearen berthutez, gure othoitzak enzunen diradela.

**M.** Beraz ezgaitik nehork temerario ez arrogant estimatzeko baldin familiarki Iainkoagana retiratzen bagara Iesus Krist Adbokat dugula eta hura aitzineko ezarten dugula, haren moienez Iainkoak gu ere bere gogarako eduki eta enzun gaitzanzat.

**H.** Ez: ezen molde hartan othoitz ari dena, Iesus Kristen ahoz othoitz egiten balu bezala da, zeren berak eman baitrauku libertate hura, eta berak interzeditzen eta adbokatzen baitu guregatik.

#### MINISTREA.

Minza gaitezen orain gure orationeak zer substantiatiko eta nolako behar diraden. Othoitz egiten dugunean galdegiteko dugu gogora ethorren zaikun guzia, ala badugu hunen gainean regla iakinik?

**H.** Baldin gure fantasiari bagarreitza, gaizki reglatuak izanen dirade gure orationeak. Ezen hanbat gara itsu eta ignorant, non zer galdegiteko dugun, ez zer behar dugun ezin iujea baitezakegu, eta hanbat dirade gure desirak desordenatuak, non behar baita brida eduki diezegun.

**M.** Zer remedio bada horren gainean?

**H.** Ezta berzerik, Iaunak berak irakats gaitzan baizen, nola behar den hobeki dakusan bezala: eta behar dugu kuasi eskutik bezala gida gaitzan, eta gu hari iarreiki gakizkion.

**M.** Eta horren gainean zer instrukzione eman ukan drauku?

**H.** Eskriptura guzia instrukzionez bethea da, baina xede iakin bat eta egiazko bat genduenzat, eman ukan drauku Iaunak regla eta forma, zeinetan baitirade laburki, gure oratione guzietan galdegitera permetitzen ezpa manatzen zaizkigun gauza guziak.

**M.** Danzugun bada hura.

**H.** Iesus Krist Iauna bere diszipuluek othoiztu kutenean, irakats litzan zer moldez othoitz egin behar luten. Ihardets ziezen, Othoitzerik eginen duzuenean, albeitzinarrate hunela:

*Gure Aita zernetan aitzena, Sanktifikat bedi hire izena: Ethor bedi hire Resuma: Egin bedi hire borondatea, zernetan bezala lurrean ere. Gure eguneko ogia iguk egun: Eta barka ietzaguk gure bekatuak, nola guk ere ofensatu gaituztenei barkatzen baitrauegu. Eta ezgaitzala sar erazi tentationetan baina delibra gaitzak gaitzetik. Ezzen hirea duk Resuma, Puisanxa, eta Gloria sekula sekulakotz. Amen.*

**M.** Hori hobeki adi dezagunzat, erradak horretan zenbat artikulatu diraden.

**H.** Sei: eta lehen hirurak, gureganako konsiderationerik batre gabe, Iainkoaren gloriara beha daude. Berzeak guregatik dirade eta gure probetxura beha daude.

**M.** Eta nola: gure probetxutako ezten gauzarik Iainkoari eskatu behar gaitzaitza?



**H.** Gauza klaroa da, hark bere ontasun handiagatik gauza guziak hala dispasutzen eta ordenatzen dituela, non deus ezin baitate haren izen sainduaren gloriatan, gure salbamenduagatik ere ezten. Bada, haren izena santifikatzen denean, hura gure santifikatzenetara itzultzen du: eta haren Resuma ethorten denean, gu ere hartan partizipant bezala gara. Baina gauza hauk desiratzen eta galdegiten ditugunean, haren gloriara solament behatu behar dugu, eta ez gure probetxura.

**M.** Hire erranaren araez lehen hirur rekesta hauk gure probetxutan badituk, baina eztiagu intentione hartara egin ez desiratu behar: baina solament Iainkoa glorifika dadin desirekin.

**H.** Hala da. Eta berze hiruretan ere Iainkoaren glorifikatzena sur behar dugu, eta bethiereko gure desir guziak fin hartara beha egon behar dirade.

#### MINISTREA.

Gatozen orain hitzen deklarationera. Eta aitzinago ioan gabe, Zergatik hemen Iainkoa lehen gure Aita deitzen dugu ezen ez berze izenez?

**H.** Zeren, othoitzerik eginen dugunean, gure konszientiak fermuki seguratuak izan behar baitirade, Iainkoa deitzen da aitatasunezko izen eme eta plazent hunez, frangoki harengana ioaitera duarik eztagigunzat.

**M.** Benturatzeko gara bada Iainkoagana familiarki retiratzera haur bat bere aitagana bezala?

**H.** Bai: etare galdegiten duguna inpetraturen dugulako seguranza handirekin. Ezen baldin guk, gaixto garelarik, ezin iraitz baditzakegu gure haurrak gauza onen eskez daudenean: Zenbatez gutiago iraitziren gaitu gu gure Iainko Aitak, zein baita ez solament on, baina ontasuna bera, eta ontasun guzia egiten duena?

**M.** Eta izen horretarik eztezakegu foroga ahal erran dena, ezen gure oratione guziak fundatuak izan behar diradela Iesus Kristen interzesionean?

**H.** Bai egiazki: zeren Iainkoak ezpaikaitu bere haurretan ezagutzen, Iesus Kristen menbro garen bezenbatean baizen.

**M.** Eta zergatik hik Iainkoa, gure Aita deitzen duk, eta ez eure ber, partikulariki?

**H.** Fideletarik nork nahi den, Iainkoa bere Aita dei ahal dezake partikulariki. Baina Iesus Kristek eman draukun othoitz egiteko forma hunetan, guzien izenean othoitz egiten irakasten gaitu, dakigunzat ezen eztagula othoitz egitean gure buruez artha behar solament, baina gure hurkoetara ere karitatez usatu behar dugula, guziek Aita bat dugunaz geroz, eta elkarren haurride garenaz geroz.

**M.** Zer erran nahi da, erraiten duanean, Zeruetan aizena?

**H.** Hanbat nola erraiten banu, Gora, Botheretsu, Inkonprehensible dela.

**M.** Nola hori eta zergatik?

**H.** Hura inbokutzen dugunean gure adimenduen goiti alxatzen ikas dezagunzat, eztezagun deus karnalik edo lurrekorik hura baithan imajina, ez hura gure kapazitatearen araura neurt, ez eztagigun irudi hura gure borondatera subiugatu behar dela, baina haren maiestate glorioso adora dezagun. Halaber, hura baithan konfidanza fermuagoa dugunzat, gauza guzien Iabe eta Gobernadore denaz geroz.

#### MINISTREA.

Deklara iezaguk orain lehen rekesta.

**H.** Santifika bedi hire izena.

**M.** Zer aditzen duk haren izenaz?

**H.** Iainkoaren izenaz Eskripturak aditzen du, haren izen eta aipamen gizonen artean zelebratzen dena: rekesta hunetan bada guk dugu desiratzen eta othoitz egiten, haren gloria exalta dadin leku orotan eta gauza guzietan.

**M.** Eta nola, Iainkoaren gloria hert edo emenda ahal daite?

**H.** Ez bere baithan: baina erran nahi da, haren gloria, nola bide baita, hala manifesta eta ezagut ere dadin, eta Iainkoak egiten dituen obra guziak, nola egiazki baitirade glorioso, halako guziez ezagut ere ditezen, alde guzietara guzaz glorifika eta lauda daiten bezala.

**M.** Eta bigarren rekestan, zer aditzen duk Iainkoaren Resumaz?

**H.** Hura bi punktutan konsistitzen da prinzipalki: bata da, bere Espirituaz gida eta goberna ditzan bere elejituak: berzea, haren obedientian



bizi eztiradenak eta reprobatuak abisma eta konfundi ditzan, klaroki ageri denzat ezen eztela deus haren bothereari resisti ahal dezakeonik.

**M.** Eta Resuma hori, zer moldez ethor dadin othoitiz egiten duk hik?

**H.** Fidelen eta Iainkoaren haurren kontua egunetik egunera augmenta eta multiplika dadin, eta konplimendua dukeiteno, gerotik gerora bere gratietarik eta dohainetarik parti diezen, bere egia ezagut eta rezebi erazi dezan: bere iustitia manifestaturik, eta Satan bere resumako ilhunbe guziarekin konfunditurik, inikitate guzia desegin eta aboli dadinzat.

**M.** Eta hori ezta ia egiten?

**H.** Egiten da parte, baina desiratzen dugu, haren Resuma haur ardu-  
ra emenda eta abanza dadin, bere perfektionera eta konplimendura hel  
daiteno, eta perfezione hunetara heldu date azken iudizioan: orduan Iain-  
koa exaltaturen da, eta kreatura guzia haren botherearen eta handitasuna-  
ren menera humiliaturen: eta bera izanen da guzia gauza guzietan.

#### MINISTREA.

Iainkoaren borondatea egin dadin erraiten duanean zer galdegiten duk?

**H.** Kreatura guziak haren obedientiarra ethor ditezen, eta gauza guzia haren borondate eta plazer onaren araura egin dadin.

**M.** Eta badaritzak hik, haren borondatearen kontra deus egin ahal daitela?

**H.** Othoitza hunetan eztugu galdegiten, Iainkoak zer bere baithan egitera ordenatu baitu, hura egin dadin: baina rebellione eta desobedientia guziak deseginik, guzien borondateak bere borondatearen obedientiarra erekar ditzan.

**M.** Eta othoitza hori egiten dugunean eztugu gure borondate propioez renuntiatzen?

**H.** Bai: eta ez solament gure desir haren borondatearen kontra diradenak gutan desegin ditzan, baina are adimendu eta bihotz berririk gutan forma dezan: halako maneraz non gure buruz deus eztugun nahi, baina gure nahi eta borondate guziak bere Espirituaz bere borondate saindua-  
ren araura konforme egin eta goberna ditzan.

**M.** Zergatik erraiten duk, Zeruan bezala lurrean ere.

**H.** Zeren haren kreatura zelestialak, zein baitirade haren Aingeruak, ezpaitabilza berzeren onduan, nondik kontradiktionerik batre gabe, hura obedi dezaketen baizen, manera berean lurrean ere egin dadin desiratzen dugu, haren obedientia borondatezko batetara ethor ditezen gizon guziak.

#### MINISTREA.

Gatozen orain bigarren partera. Eguneke eskatzen aizen ogiaz zer aditzen duk?

**H.** Jeneralki gure gorputzaren behar diraden gauza guziak: ez solament sabelera eta soinera behar duguna, baina bizitze hunetan bakez izateko zer ere behar dugula Iainkoak baitakusa hura guzia galdegiten dugu: gure ogia bakez ian ahal dezagun.

**M.** Eta nola eskatzen atzaio Iainkoari eure hazkurria eman diezan, ikusirik ezen berak gure eskuezko trailla haren irabaztera manatzen gaituela?

**H.** Gure biziagatik trailla eta nekatu behar bagara ere, gure trailla, thornuak ez diljentiak ezgaitu bizi, baina Iainkoaren benediktionek berak, zeinek gure eskuezko lana benedikatzan baitu. Eta gehiago, aditu behar dugu ezen ezgaituzteki biandek hatzen ez entretenitzen, heterik nahi bezenbat dugula ere, baina Iainkoaren berthuteak haien moienez: ezen hek eztute bere berez berthuterik batre, baina Iaunak bere ontasunagatik gure hatzeko instrument bezala enplegatzen ditu.

**M.** Zer zuzenez ogia deitzen dugu gure, hura eman dakigun eskez gaudenaz geroz?

**H.** Zeren Iainkoaren ontasunagatik, gure egiten baita merezi ezpaddugu ere. Eta hunez irakasten gara, eztezagun berzeren ogia gure desira, Iainkoaren ordenanzaren arauz bidezki eta lejitimoki irabazirik eta mendikaturik baizen.

**M.** Zergatik hitz hauk erraiten dituk, Egunekoa, eta Egun?

**H.** Bi hitz hauz irakasten gara kontentamendu ukaitara: eta gure beharrak emaiten duen baino gehiago ez desiratzera.





**M.** Othoitz haur guzien komun denaz geroz, nolatan abratsak, denbora luzetako probisionea dutelarik, eguneko ogiaren eskez daude?

**H.** Bai abratsak bai paubrek haur iakin behar dute, ezen duten guzia, ezin deus balia ahal dakidiela, Iainkoak bere gratiaz usatzeko eta hartarik gozo hartzeko leku emaiten drauen bezenbat baizen. Bada anhitz dugularik ere, eztugu deus, beharraren araura Iauinak emaiten duena baizen.

#### MINISTREA.

Borzgarren partean zer galdegiten dugu?

**H.** Iainkoak, othoi, gure bekatuak barka dietzagun.

**M.** Nehor bada munduan hain iustorik, non barkamendu eskatze haur egin behar eztuen?

**H.** Ezta nehor ere: ezen Iesus Iauinak othoitz egiteko forma haur eman draue bere Apostoluei bere Elizarendako. Eta norik ere bere burua puntu hunetarik idoki nahi bailuke, hark Kristinoen konpainia renuntiatzen luke. Eta hunez Eskripturak testifikatzen drauku, ezen baldin perfektioen ere, puntu huts bat bere buruaren iustificatzeko allegatu nahi balu, hura millatan hogendun eriden leitela: beraz guziek rekurs eta itzurtbide bakoitz bat baizen eztugu, zein baita haren miseriakordia.

**M.** Bekatuen barkamendu haur, zer moldez egiten zaikula aditzen duk hik?

**H.** Iesus Kristen hitz berek erakusten duten moldean. Ezen bekatuak diradela gu herio eternalera obligatuak gadutzaten zorrak, Iainkoak bere liberalitate puzez hetarik delibra eta idoki gaitzakeno.

**M.** Beraz hik aditzen duk, ezen bekatuen barkamendua dohainik Iainkoaren miseriakordiaz egiten zaikula.

**H.** Segura da hori: ezen gure bekatuak xipiena ere guk egin ahal genezaken botherez ezin remedia leite: baina Iainkoaren miseriakordiatik eta ontasunetik gure barkamendu guzia ethorri behar da.

**M.** Eta Iainkoak bekatuak barkatzen drauzkigunean, zer emendio handik ethortzen zaiku?

**H.** Moien harzaz haren gogarako egiten gara, iusto eta hogen gabe bagine bezala, eta seguratzten gara haren gureganako amorioaz: eta handik heldu zaiku salbamendua eta bizitze eternala.

**M.** Eta othoitz egiten dugunean, Iainkoak hala barka dietzagun gure bekatuak, nola guk ofensatu gaituztenei barkatzen baitrauegu: aditzen duk hik, ezen berzei barkatuz, barkamendu merezitzen dugula?

**H.** Ez. Ezen halatan barkamendua elizate gratiaz ez dohainik, ez elizate fundatua Iesus Kristek bere herioaz eta pasioneaz egin duen pagamenduan. Baina berzek egin drauzkigun faltak barkatzen ditugun bezenbatean, haren emetasunari eta benignitateari iarreikiten gjaizkio, eta manera hunetan erakusten dugu ezen haren haur garela, eta seignale haur emaiten drauku gure zertifikatzeko eta seguratzeko. Baina berzaldere deklaratzten drauku ezen gogorgoaz eta rigortasunez berzerik haren iudizioan eztugula zegei uste ere dugun, baldin ofensatu gaituztenei gogotik barkatzera fazil eta gogabera ezpagara.

**M.** Beraz hik erran nahi duk ezen nehorzaz egiten zaizten faltak ahanz ezin ditzakeiztenak, eztituela Iainkoak bere haurretan ezagutzen: eta gratia hunetan ezin partizipant diratekela.

**H.** Hala da egia: eta iakiteko du batbederak, ezen zer neurritz nehorik nehor neurturen baitrauka, hala rendaturen ere zaiola.

#### MINISTREA.

Zer dugu orain deklaratzeko?

**H.** Ezgaitzala sar erazi tentationetan: baina delibra gaitzak gaitzetik.

**M.** Eta horrez guziaz eztuk rekesta bat baizen egiten?

**H.** Ez: ezen geroko partea aitzinekoaren delaratione baizen ezta.

**M.** Zer da horren somarioa?

**H.** Iainkoak, othoi, gaitzean trebukatzetik eta erortetik begiratu nahi gaituen: eta eztezan permeti deabruaz, ez gure haragiaren guthizia gixto bethiere gare kontra bataillatzen diradenez garait gaitzen: baina haici resistitzeko eta garaitzeko bothere eman nahi draukun, eta bethiere esku eduki diezagun, gaitz guzietarik begiratzen eta ontasun orotara gidatzen gaituelarik.



**M.** Eta hori noiz eta nolatan egiten da?

**H.** Iainkoak bere Espirituaz hala gobernatzen gaituenean, non ungiari eta harenganako eginbideari baikarreizkeo, eta gaizkiari eta bekatuari ihes egin baitezakeogu. Ezen Espiritu sainduaren berthutez deabruari, bekatuari eta gure haragiari garaithu behar gaitzaizte.

**M.** Eta guziak dirade aiuta horren behar?

**H.** Bai: ezen bethiere deabrua keixu dabila gure inguruan, lehoin murrumaz dagoen baten anzora, nor nondik irets dekakeen bilha: eta gure ethortez hanbat gara flaku eta ezdeus, non guzaz nahi luena bertan egin bailezake, baldin Iainkoak biktoria ukaitera fortifika ezpaganza.

**M.** Zer erran nahi da tentationea?

**H.** Leku hunetan tentationea erran nahi da deabruaren finezia eta enganioa, zeinez usatzen: baitu gure hatzamaiteko, erratxenik garenaren araura: eta baldin Iainkoaren aiuta ezpaliz nahi luena fitetz egin lekake gure gainean, ezen gure borondatea, ungiara baino gaizkira emanagoa da.

**M.** Baina zergatik Iainkoari galdegiten draukak hik, ezezan sar erazi tentationetan, ikusirik ezen deabruaren ofizio propria dela hura?

**H.** Nola Iainkoak bere miseriardiagatik bere fidelak begiratzen baititu, eta ezpaitu permetitzen deabruak hek engana ditzan ezeta bekatuak garait: hala punitu nahi dituenak, eztitu abandonatzen solament eta bere gratia hetarik retiratzen, baina deabruari utziten ere badrauzkio, hark itsu ditzan eta adimendu reprobaturan bere tiraniaren azpian eduki ditzan.

**M.** Zertako erraiten dugu azkenean, Ezen hirea duk Resuma, Pui-sanza, eta Gloria, sekula sekulakotz?

**H.** Hatsean bezala finean ere gure orhoit eraziteko, ezen gure orationeak Iainko Iaunean, eta haren botherean eta ontasunean fundatuagok diradela ezen ez gutan, zein ezpaikara digne hari rekestarik egitera gure ahoaren irekitek: eta ikas dezagunzat ezen gure othoitza guziak Iainkoaren laudatzez finitu behar ditugula.

#### MINISTREA.

Othoitze formak hunetan den gauzarik baizen ezkaitzaitza Iainkoari eskatu behar?

**H.** Othoitza egitean berze formaz eta berze hitzez usatzeko libertatean bagara ere, othoitze formak hunetara bil eta erekar ezin daiten orationerik batre Iainkoaren gogarakorik ezin date.

**M.** Engoitik ordu duk gatozen Iainkoari rendatu behar draukagun ohorearen laurgarren partera.

**H.** Erran dugu hura dela Iainkoaren egiazki on guziaren Iabe eta emaile bihotzez ezagutzea eta ahoz aithortzea, glorifika dezagunzat.

**M.** Eta horretakotzat eztrauku reglarik eman?

**H.** Eskripturan diraden laudorio eta esker emaita guziak, reglatzat eta doktrinagarri eduki behar ditugu.

**M.** Puntu hautarik ezta deus hunki izan orationean?

**H.** Bai: ezen desiratzen dugunean sanktifika dadin haren izena, desiratzen dugu haren obra guziak diraden bezala glorioso ezagut ditezten. Halako maneraz non, punitzen badu, ezagut dadin iusto: barkatzen badu, miseriardioso: bere promesak konplitzen baditu, egia. Eta labur erraitera, haren obretan ikusten dugun gauza guziek haren glorifikatza inzi-ta gaitzaten: eta haur date bere ontasun oroz hari laudorio emaita.

**M.** Erran dugun orotarik zer konkludi ahal dezakegu?

**H.** Egia berak irakasten gaituena, eta nik hatsean hunki dudana, ezen bizitze eternala dela haur, Iainko egiazkoaren eta Iesus Krist hark igorri duenaren ezagutzea: ezagutzea diot, bidezki ohora eta zerbitza dezagunzat, ez solament Iaun eta Iabe bezala, baina Aita eta Salbadore bezala: eta gu ere halaber, garen haren gloriatako haur, zerbitzari eta populu.

#### MINISTREA.

Zer bidez ezpa nolatan nehor on handi horretara hel ahal daite?

**H.** Hunetakotzat utzi ukan drauku bere Hitz saindua, zein baita zeruetako Resumara gure sartzeko bortha bezala.

**M.** Eta non hartzen duk Hitz hori?

**H.** Eskriptura sainduetan.

**M.** Gure probetxurik egitekotz, Hitz horrez nola usatu behar dugu?



**H.** Egiazki harraz usatzen dukegu, baldin bihotzeko seguranza bethetan hura rezebitzen badugu, egia zerutik iausten dena bezala, gure buruak haren obediencia submetitzen ditugularik: baldin hura afektionatuki onhesten, enzuten eta inprimitzen badugu, gure bizi guzian hartan manatzen zaikun bezala bizitzeko gogorekin: hunela harraz usat dezagun orduan, date gure salbamendutakotz: hunetakotzat fidelen ordenatu ere den bezala.

**M.** Eta hori guzia gure botherean da?

**H.** Ezeta batre, baina haur guzia Iainkoak egiten du gutan bere Espirituaz.

**M.** Bada irakasten zaikun doktrinaren enzutera eta ikastera eztugu dilijentiarik ezarteko?

**H.** Bai aitzitik. Eta batbedera bere aldetik Iainkoak eman draukan maneraren araura enseiatzeko da: eta guziz fidelen kongregationetako predikationetara ioanez: zeren Hitz haur Kristinoen kongregationetan deklaritzen baita.

**M.** Aditzen duk hik ezen eztela asko nork bere etxean Iainkoaren hitza irakur dezan, baldin guziak elkargana, doktrina ber baten enzutera biltzen ezpadirade?

**H.** Hala aditzen dut, Iainkoak hala moienak emaiten dituenean.

**M.** Eta hori foroga ahal ezake?

**H.** Asko foroganza dugu Iaunaren borondateaz, ezen hark ordenanza eta moien hura zarri ukan du bere Elizan, ez bigatetik edo hiruregatik, baina jeneralki guziakgatik, eta deklaratu ukan du ezen hura dela Elizaren edifikatzeko eta entretenitzeko moien bakoitza. Dadukagun bada guziek regla haur, eta etzegagula gure Majistruak baino gehiago iakitera presumi.

**M.** Gauza beharra eta nezesarioa da Pastorak diraden Elizetan?

**H.** Bai: eta nehor haeci beha dakien, eta haien ahoetarik beldurrekin eta humilitaterekin Iaunaren doktrina rezebi dadin. Bada, nork ere haien enzuteaz konturik ezpaitu egiten, Krist bera menospreziatzen du eta bere burua fidelen konpainiatik apartatzen.

**M.** Baina asko du nehork behin instruitua den, ala bere bizi guzian kontinuatu behar du?

**H.** Hatsea gauza guti bat da, nehork bethi persebera eta kontinua ezpadeza. Ezen finerano Kristen diszipulu izan behar dugu. Eta Ministreak ordenatu ukan ditu Elizan haren izenean populuaren irakasteko eta instruitzeko.

#### MINISTREA.

Etzaiku Iainkoa bere Hitzaz baizen komunikatzen berze moienez?

**H.** Bere hitzaren predikationearekin bat egiten ditu Sakramenduak ere.

**M.** Zer da Sakramendua?

**H.** Sakramendua da, Iainkoaren gureganako amorioaren testifikatioe exterior bat, zeinek signo bisiblez gauza espiritualak representatzen baitrauzkigu, Iainkoaren promesak gure bihotzetan hobeki inprimi ditezenzat, eta gu segurago gaitezenzat.

**M.** Signo bisible batek hanbat bothere ahal duke, non salbamenduko gauzan gure konszientiak zertifika eta segura ahal ditzan?

**H.** Ez bere berez, baina zeren Iainkoaz hartakotzat ordenatu izan baita.

**M.** Iainkoaren promesen gure bihotzetan zigilatzea Espiritu sainduari eman zaionaz geroz, hik nola Sakramenduei atribuitzen drauek ofizio hura?

**H.** Diferentia handia da batetik berzera, Ezen Iainkoaren Espiritua da egiazki gure bihotzak hunki eta iratzar ahal ditzakeena, gure adimenduak illuminatzen eta gure konszientiak seguratzten dituena, halako maneraz non hauk guziok remerziamendurekin eta laudoriorekin hari berari ezagutu behar baitzaizkio. Baina Iauna nola irudi baitzaio hala Sakramenduez zerbitzatzen da instrument beheragoz bezala, bere Espiritu sainduaren berthuteari deus edeki gabe.

**M.** Hik beraz Sakramenduen indarra eta berthutea eztuk estimatzen element exteriorean konsistitzen dela: baina Iainkoaren Espiritutik guzia prozeditzen dela.

**H.** Hala da: berak ordenatu dituen moienen araura, Iainkoak obratu plazer duen bezala, bere puisanzari deus edeki gabe.



**M.** Eman ahal dezakek razoinik zergatik Iainkoak hala egiten duen?

**H.** Gure infimitatearen sulajeamenduagatik. Ezen baldin gu natura espiritualez bagina Aingeruak bezala, espiritualki Iainkoa eta haren gratiak kontenpla ahal genzake: baina zeren gure gorputzez inguratuak baikara, behar dugu gauza espiritualak eta zeestialak representatu nahi drauzkigunean figuraz usat diezagun: ezen berzela ezlizate posible konprehendi ahal genzan. Eta berzalde gure probetxua da gure sendimendu guziak exerzita ditezen haren promes sainduetan, hetan hobeki konfirma gaitzenzat.

#### MINISTREA.

Iainkoak gure beharragatik Sakramenduak ordenatu drauzkigunaz geroz, ezlizate arrogantia eta presumptione handiegia, hezaz nehor iragan ahal leitela pensatzea ere?

**H.** Bai segur, hanbat non nork ere bere burua hetarik pribatzen baitu, alegia hura iragan ahal, hark Iesus Krist eta haren gratia menospreziatzen baititu, eta Espiritu saindua iraungiten.

**M.** Baina zer gratiazko seguranza eman ahal dezakete Sakramenduek, ikusirik ezen bai onek bai gaixtoek bardinzki rezebitzen dituztela?

**H.** Gaixtoek eta sinheste gabek Sakramenduetan presentatzen zaien gratia hezaz den bezenbatean ezeztatzen badute ere, ezin daidite ordea halakotz, Sakramenduek fideletan bere indarra eta propietatea eztatzen.

**M.** Zer moldez bada eta noiz Sakramenduek egiazki obratzen eta exekutatzen dute bere propietatea?

**H.** Federekin rezebitzen ditugunean, hetan Iesus Kristen eta haren gratiaren bilha gabiltzalarik.

**M.** Zergatik diok hetan Krist bilhatu behar dugula;

**H.** Aditzera emaitagatik ezen ezgarela element bisibletan gelditze-ko, hetarik gure salbamendua uste bagindu bezala: eta eztugu imajinatu behar hetan barna dagoela zerbait gratia gorderik, baina aitzitik signoa rezebitzen dugu aiutatana, xuxenki Iesus Iaunagana gure salbamenduaren eta ontasun ororen ukaitera gida gaitzenzat.

**M.** Sakramenduetan fedea nezesario denaz geroz, nola diok hik ezen hek eman izan zaizkigula fedearen konfirmationetan, gu Iainkoaren promesez segura gaitzenzat?

**H.** Ezta asko fedea gutan behin hasia den solament, baina hazi eta entretenitu ere behar du, gerotik gerora augmenta dadinzat. Bada, haren hatzeko fortifikatzeko eta augmentatzeko, Iaunak emaiten drauzkigu Sakramenduak. Eta haur deklaritzen drauku S.Paulek, dioskunean ezen hezazko usajea dela, Iainkoaren promesak gure bihotzetan zigila ditezenzat.

**M.** Baina ezta infidel izateko seignalea Iainkoaren promesak bere berez berze aiutarik gabe asko fermu etzaizkigunean?

**H.** Hura, fedearen xipi eta flaku izate seignale bat da, eta Iainkoaren haurrek ere badute hura, baina halakotz fidel izatea eztatzen, oraino fede xipitua eta imperfekta badute ere. Ezen mundu hunetan garen, badi-tu gure haragiak bere difidentiazko relikiak: halakotz bethiere fedean probetxatu eta abanzatu behar gara.

#### MINISTREA.

Zenbat Sakramendu dira Kristinoen Elizan?

**H.** Eztirade biga baizen komunik, eta Iesus Kristez fidelen konpaignia guziarendako ordenaturik.

**M.** Zein dira hek?

**H.** Baptismoa, eta Zena saindua.

**M.** Bi Sakramendu hauk zertan dute elkar irudi eta zertan ez?

**H.** Baptismoa dugu Iainkoaren Elizara sartze bat bezala. Ezen harzaz testifikatzen zaiku, nola estranjer ginadelarik, Iainkoak bere etxeko eta familiako rezebitzen gaituen. Zenaz testifikatzen zaiku ezen Aita egiazko anzo Iainkoak gure arimei hazitze eta refekzione eman nahi drauela.

**M.** Hobeki adi ditezenzat, gaitzen bat az eta berzeaz bereziki minza. Eta lehenik, zer da Baptismoaren signifikatzea?

**H.** Baptismoak ditu bi parte. Ezen hartan Iainkoak representatzen drauku gure bekatuen barkamendua, eta gero gure rejenerationea, edo espirituzko arranberritzea.

**MINISTREA.**

Zer konparatione du urak gauza horiekin, horrela representa ahal ditzan?

**H.** Bekatuen barkamendua ikutze mota bat bezala da, zeinez gure arimak bere makuletarik ikutzen baitirade, gure gorputzetako satsutasunak urez ikutzen diraden bezala.

**M.** Eta rejeneracioneaz zer diok?

**H.** Zeren gure rejeneracionearen lehen hatsea baita, gure naturaren mortifikacionea: eta fina, Iainkoaren Espirituaz berrituak garen. Ura buru gainera emaiten zaiku herioaren signaletan, baina halako maneraz, non resurrekcionea ere figuratzen baitzaiku, ur egoizte hura moment batetako, eta ez itho gaitezkeen, forman egiten zaikun bezenbatean.

**M.** Aditzen duk hik ezen ura dela gure arimen ikuzgarria?

**H.** Ez: ezen hori apertenitzen zaio solament Iesus Kristen odol guregatik isuri izan denari, gu pur eta xahu Iainkoaren aitzineko egin genzanat: eta haur konplitzen da gutan gure konszientiak Espiritu sainduaz ihizatzen diradenean: baina zertifikacionea Sakramenduan dugu.

**M.** Aditzen duk hik ezen ura barneko ikutzearen figura baizen eztela?

**H.** Hala da figura, non figuratzen denaren egia ere harekin batean baita. Ezen Iainkoak eztrauku deus alfer prometatzen. Bada segura da, ezen bekatuen barkamendua presentatzen zaikula baptismoan eta rezebitzen ere badugula.

**M.** Gratia haur guzietan indiferentki konplitzen da?

**H.** Ez: ezen anhitzek bere gaixtatasunez ezeztatzen dute, baina halakotz propietate eta natura hartako izatea Sakramenduak eztu galtzen, haren berthutea eta indarra fidelek baizen ez senditzenagatik.

**M.** Rejeneracioneak nondik hartzen du bere berthutea?

**H.** Iesus Kristen heriotik eta resurrekcionetik. Ezen haren herioak du halako berthutea, non gure Adam zaharra kruzifikatzen baita, eta gure natura bitiosoa ohortziten bezala baita, gutan regnatzeko gehiago bothererik eztuenzat. Eta bizitzearen arranberritzea, resurrekcionetik heldu da, Iainkoaren iustitziari garreitzanzat.

**M.** Nolatan gratia hori aplikatzen zaiku Baptismoan?

**H.** Han Iesus Kristez beztituz eta haren Espiritua rezebituz, baldin hartan presentatzen zaizkigun promesak refusatuz gure buruak indigne egin ezpaditzagu.

**MINISTREA.**

Guk gure aldetik zer egin behar dugu, egiazki Baptismoaz usatzekotz?

**H.** Egiazki Baptismoaz usatzeko forma, fedean da eta penitentian: erran nahi dut, segur izan behar garela, ezen gure puritate espirituala Kristen odolean dugula, geurok baithan senditzen dugularik, eta obraz gure hurkoei deklaritzen drauegularik, ezen Kristen Espiritua gutan habitatzen dela, gure guthizien mortifikatzeko eta Iainkoaren borondateari iarreiki eraziteko.

**M.** Baptismoan gauza horiak nezesario diradenaz geroz, nolaz batheiatzen ditugu haur xipiak.

**H.** Ezta bethi nezesario fedea eta penitentia Baptismoan diraden: baina haur aditzen da solament adinetako eta kapable diradenez. Bada, asko date haur xipietan baldin ezagutzetara eta adinetara datozenean, bere Baptismoaren fruktuak erakuts baditzate.

**M.** Nolatan erakuts ezake erraiten duan horretan inkonbenientik eztela?

**H.** Gauza klaroa da, Moisesek eta Profeta guziek deklaritzen duten bezala, ezen Zirkonzisionea ere, penitentiazko Sakramendu bat zela: baie-ta fedezko Sakramendu, S. Paulek dioen bezala: guziagatik ere badakusagu Iainkoak eztituela haurrak hartarik iraitzi ukan.

**M.** Baina haurren Baptismora eta Zirkonzisionera rezebitzea razoin ber bat da?

**H.** Razoin bat bera: ezen Iainkoak Israeleko populuari lehenago egin zerautzan promes berak, dirade orain mundu orotara zabalduak eta publikatuak.

**M.** Baina asko da horretarik konkluditzeko ezen signoaz usatu behar dugula?

**H.** Gauza ungi piza eta konsidera dezanak, hala eridenen du. Ezen Iesus Kristek ezgaitu Israeleko populuari eman izan zaion gratian partizi-



pant egin, hura orain gutan orduan zen baino ilhunago edo hertago dezanat: baina-aitzitik klarotuago eta frangatuago drauku hura.

**M.** Eta uste duk baldin Baptismoa haur xipiei emaiten ezpagendraue, Iainkoaren gratia hertu lizatela Iesus Kristen ethortez?

**H.** Hori gauza klaroa da. Ezen signoa edeki baledi (zeinek Iainkoaren miseriakordiaz testifikatzeko, eta promesen konfirmatzeko anhitz balio baitu) lehenagokoek zuten konsolatione handiaz gabe ginande.

**M.** Hik aditzen duk beraz, haur xipien Salbadore deklaritzen zeneko promesa, Iainkoak Sakramendu exteriorrez haien gorputzetan zigilatu nahi ukan duenaren gainean, ezlizatela razoin Kristen ethortearekin fidelek konfirmatione eta seguranza gutiago luten, ikusirik ezen lehenagoko promes bera dela egungo egunean ere, etare klarokiago hura testifikatu izan zaikula eta eginez konfirmatu.

**H.** Egia da hori. Are gehiago, gauza klaroa denaz geroz ezen Baptismoaren berthutea eta substantia haurrei apertenitzen zaiela, signoa baita egia ezpa berthutea baino gutiago, iniuria handia egin lekidie haurrei, baldin hura denega balekie.

**M.** Zer konditionetara bada batheiatzeko ditugu haurrak?

**H.** Iainkoaren benedikzione fidelen jenerationeari prometatu izan zaienaren herederor diradela signaletan eta testimoniajetan: adinetara eta ezagutzetara datozenean, Baptismoaren egia eta berthutea, bere probetxua egin dezaketen bezala, ezagut dezatenzat.

#### MINISTREA.

Gatozen orain Zenara. Eta lehenik nahi nizek hireganik iakin, zerik den haren signifikatonea.

**H.** Iesus Krist gure Iaunak hura ordenatu ukan du, gu irakats eta segura genzanat, ezen haren gorputzaren eta odolaren komunikatoneaz gure arimak hatzen diradela, bizitze eternalaren esperanzatan.

**M.** Zergatik Iaunak ogiaz bere gorputza, eta mahatsarnoaz bere odola representatzen drauku?

**H.** Aditzera eman diezagunzat ezen ogiak bizitze mortal hunetan gure gorputzen hatzeko eta substantiatzeko duen propietate bera duela haren gorputzak gure arimen espiritualki hatzeko eta bibifikatzeko. Hala-

ber, nola mahatsarnoak ere gizona gorputzera den bezenbatean hatzen, fortifikatzen eta alegeratzen baitu, hala haren odola ere dela gure arimen berthutea, refektionea eta alegranza.

**M.** Aditzen duk hik, ezen egiazki komunikatzen eta partizipatzen dugula Iaunaren gorputzean eta odolean?

**H.** Nik hala aditzen dut. Ezen gure salbamenduko konfidanza guzia, hark bere Aitari rendatu ukan draukan obedientian konsistitzen denaz geroz, hura gure baliz bezala aboatzen zaikun bezenbatean, behar da hura posedi dezagun: ikusirik ezen haren onak ez tiradela gure, baldin bera lehenik eman ezpadakigu

**M.** Baina etzaiku guri eman bere burua heriotara eman ukan duenean, gu herioaren kondemnationetik delibraturik bere Aitari rekonzilia gienzozat?

**H.** Hori egia da. Baina eztugu horrez asko, baldin hura orain rezebi ezpadezagu, haren herioaren eta pasionearen fruktua eta berthutea geurok baithan sendi dezagunzat.

**M.** Eta rezebitzeko manera fedez da?

**H.** Bai: eta ez solament sinhetsiz ezen hura hil eta resusztatuta dela, gu herio eternaetik delibraturik, bizitze eternala irabaz liezagunzat: baina are sinhetsiz ezen hura gutan habitatzen dela, eta burua bere menbroekin iunktatua den koniunktionez eta iunktaduraz iunktatua eta gurekin bat egina dela, koniunktiona hunen berthutez bere gratia orotan partizipant egin gaitzanzat.

#### MINISTREA.

Eta komunione hori ezta Zenan baizen egiten?

**H.** Bai aitzetik: ezen Ebanjelioaren predikationeaz ere Krist komunikatzen zaiku, S. Paulek dioskun bezala, ezen haren gorputzeko menbro garela, haren haragitik eta haren hezurretarik: berak ere erraiten drauku, ezen hura dela ogi bizia, zerutik gure arimen hatzeagatik iausti izan dena: eta gu bat garela harekin, hura bere Aitarekin bat den bezala: eta berze hunelakorik asko.

**M.** Zer dugu berze gauzarik Sakramenduan, eta zer berze probetxurik ethorten zaiku?



**H.** Haur bai behinbat: erran den komunione haur konfirmatzen eta augmentatzen baitzaiku. Ezen egiazki Iesus Krist bai Baptismoan, bai Ebanjelioan komunikatzen bazaiku ere, eztugu ordea osoki rezebitzen, baina partez.

**M.** Zer dugu bada somarioki ogiazko signoan?

**H.** Aditzera emaiten zaiku, ezen Iesus Krist gure Iaunaren gorputza, gu Iainkoarekin rekonzilia genzanzat, behin guregatik sakrifikatu izan den bezala, orain ere hura bera guri emaiten zaikula, zertifika gaitenezat ezen rekonziliatione hartan partizipant garela.

**M.** Zer dugu mahatsarnoazko signoan?

**H.** Kristek, nola behin bere odola isuri ukan baitu gure bekatuen pagamendutan eta gure redentionearen preziotan, hala hura orain ere edatera emaiten zaikula, handik guri ethorteko zaikun fruktua sendi dezagunzat.

**M.** Hire repostaren araeuz, Iaunaren Zena sainduak haren herio eta pasionera bidaltzen gaitik, hartako berthutean partizipa eta komunika dezagunzat.

**H.** Hala da egia. Ezen orduan egin eta konplitu izan da sakrifizio bakoitza eta perpetuala gure redentionetan. Eta ezta deus gehiagorik, harzaz gaudi gaitezen baizen.

**M.** Beraz Zena eztuk, Iainko Aitari bere Semearen gorputzaz oblatione egin lekionzat, ordenatu izan.

**M.** Ez: ezen ofizio hura apertenitzen kaionik ezta hura bera baizen, zeren hura baita Sakrifikadore eternala. Ezen ezgaitu manatzen haren gorputza ofrenda dezagun, baina solament rezebi dezagun.

#### MINISTREA.

Zergatik bi signoz usatzen dugu?

**H.** Hori Iaunak gure infirmitateagatik egin ukan du, aditzera eta eza-gutzera ligunzat, ezen eztela hura gure arimen bianda solament baina edari ere badela hura baithan berean gure izate eta hazitze espiritual guzia bilha dezagunzat, eta ez berzetan.

**M.** Guziek bardinzki usatu behar dugu kopako bigarren signo hunez?

**H.** Bai: Iesus Kristen manamenduaren araura, zeinen kontra neholetan ere ioaita ezpaita sori.

**M.** Zenan ala dugu sinpleki erran diraden gauzen testimoniagea, ala egiazki eta realki hartan emaiten zaizkigu hek?

**H.** Iesus Krist gure Iauna egia bera denaren gainean, ezta dudarik, Zenan egiten drauzkigun promesak konplitzen ere ezituen, eta figuratzen draukuna, berifikatzen. Bada, nik eztut dudatzen, hitzez eta signoz testifikatzen draukun bezala, eginez ere bere substantia proprian partizipant egiten, ezgaituen, berekin bizitzeko uni eta bat egin gaitenzat.

**M.** Baina hori nolatan egin ahal daite, Iesus Kristen gorputza zeruan, eta gu oraino iragaitzez bezala lur hunetan garenaz geroz?

**H.** Hori egiten du bere Espirituaren berthute mirakuloso eta konprehendi ezin daitenaz, zeinek lekuz separatuak diraden gauzak bat egiten baititu.

**M.** Beraz hik eztuk aditzen gorputza ogian barna dela, ez odola mahatsarnoan.

**H.** Ez: baina aitzitik kontrariora, baldin signoen egiaz Sakramenduan gauditu nahi bagara, goiti zerura gure bihotzak altxatu behar ditugu, non baita Iesus Krist bere Aitaren glorian, eta nondik ethorteko baita, begira ere gauden bezala, gure redentionetan: eta alfer bilha ahal genezake element korruptible hautan.

**M.** Beraz hik aktitzen duk ezen Sakramendu hunetan bi gauza diradela: ogi eta mahatsarno material ikusten, hunkitzen eta gozatzen ditugunak: eta Iesus Krist Iauna, zeinez gure arimak interiorki hatzen baitirade.

**H.** Egia da: etare hanbatetarano non gure gorputzen resurrektionean ere hartan, kuasi erresak emanik bezala, konfirmatzen baitzaiku: hek bizitzeko signoan partizipant egiten diraden bezenbatean.

#### MINISTREA.

Zein da Sakramendu hunez egiazki usatzeko forma?

**H.** S. Paulek erraiten draukuna: Hartara dathorren baino lehen gizonak foroga dezan bere burua.



- M.** Eta zertan bere burua forogatu behar du?
- H.** Examina dezan bere burua, eia Iesus Kristen egiazko membro denez.
- M.** Zer signoz hori ezagut ahal lezake?
- H.** Baldin egiazko fedea eta penitentia baditu, baldin bere hurkoari egiazko karitatez on badaritza, eta baldin bihotza gaitzerizte, rankore eta dibisione orotarik xahu badu.
- M.** Baina fedeak eta karitateak perfekt izan behar dute?
- H.** Bata eta berzea behar dirade izan egiazko eta ez hipokrisiazko, baina halako perfektione baten ukaitea, non zer erran ezten, gizonen artean mundu hunetan garen ezta eridenen. Eta Zena ere alfer ordenatu izan zatekeen, baldin guziz perfekt diradenak baizen haren rezebitzeko kapable ezpalirade.
- M.** Beraz inperfekt izanak ezgaiatik enpaxatzen hartara ioaitetik.
- H.** Baina kontrariora, baldin inperfekt ezpagina, Zena ezlakidigu deus probetxa: ezen gure inperfekzionen eba infirmitaten aiutatan izan behar da hura.
- M.** Bi Sakramendu hauk eztaude berze finetara beha?
- H.** Bai: ezen gure profesionearen eta Kristinotasunaren merka ere badirade: erran nahi dut, ezen hezaz protestatzen eta testifikatzen dugula nola Iainkoaren populu eta Kristino garen
- M.** Nolako edo zer estimatzeko lizate Sakramendu hauzaz usatu nahi ezlukeena?
- H.** Ezlizate Kristinotan ere edukiteko, ezen eztu halako erakutsi nahi bere burua, hala egiten duenak, aitzitik Iesus Krist desabotzen eta ukatzen bezala du.
- M.** Baina asko da bai bataren eta bai berzearen gure bizi guzian behin rezebitzea?
- H.** Baptismoa ezta behingo baizen ordenatu, eta ezta sori behin bai-zen rezebi dadin. Baina Zenaz ezta hala.
- M.** Eta zer diferentia da?

**H.** Baptismoaz Iainkoak adoptatzen eta rezebitzen gaitu bere Elizara. Eta rezebitu gaituen ondoan Zenaz testifikatzen eta deklaritzen drauku, ezen bethiere hazi nahi gaituala.

#### MINISTREA.

- Nori eman zaio Batheiatzea eta Zenaren administratzea?
- H.** Elizan irakasteko kargu publikoa dutenei. Ezen elkarri datxetza. hitzaren predikationea eta Sakramenduen administrationea.
- M.** Eskripturaz hori erakuts ahal ekake?
- H.** Bai erraxki ere: ezen gure Iaunak batheiatzeko kargua, espezialki bere Apostoluei eman ukan zerauen, hitzaren predikatzekoa bezala: eta Zenaren administrationean, haren exenpluari garreitzan manatu gaitu. Eta deklaritzen draukute Ebanjelistek, ezen Zenaren distribuitzean berak ministre publikoaren ofizioa egin ukan duela.
- M.** Baina Sakramenduen dispensatzeko eta administratzeko kargua duten Ministrek, diskretionerik batre gabe, rezebitzeko dituzte hartakotzat presentatzen diraden guziak?
- H.** Baptismoaz den bezenbatean zeren haurrei baizen egungo egunean ezpaitzaie hura administratzen, hartan diskretioneak eztu lekurik. Baina Zenan gogoatu behar du Ministreak ez emaitera, indigne dela nehork klaroki ezagutzen duenari.
- M.** Zeren ez?
- H.** Zeren berzela emaita, Sakramenduaren profanatzea eta desohoratzea baizen ezpailizate.
- M.** Bada Iesus Krist Iaunak Judas rezebitu zian, gaixto eta indigne bazen ere.
- H.** Zeren haren gaixtakeria oraino estalia eta sekretu baitzen, ezen Iesus Krist Iaunak bazakian ere, berzek deus etzakiten.
- M.** Zer ikanen da bada hipokritez?
- H.** Ministreak indigne bezala ezin iraitz ditzake hek: baina iguriki behar du, Iaunak haien gaixtakeria kanpora dezakeno.





**M.** Eta baldin zenbeit indignerik ezagutzen badu, edo hala adbertitu izan bada?

**H.** Eztate hura asko halakoen iraitzeko baldin foroganza sufizientik ezpada, eta Elizaren iujemendua.

**M.** Beraz horrelakoen gainean behar dik den zerbait gobernamentu eta politia Elizan.

**H.** Hala da: baldin Eliza bide bezala reglatua bada: eta hartakotzat personaje deputatuak eta ordenatuak behar dirade, hel ahal litezkeen eskandaloen gainean beilla eta gogoa dezatenzat: eta halakoek, kapable eta sufizient eridenen ez tiradenak, eta Zena saindura Iainkoa desohoratu gabe, eta fidelak eskandalizatu gabe ezin rezebi daitezkenak, iraitz ditzaten.

Katexismearen fina